año en el Ayuntamiento y suelen andar mirando con lupa los informes, y cree que esto sí requiere ese contraste previo sobre qué está sujeto a interpretación correcta y qué no lo está. Puede estar de acuerdo con eso, igual que reconoce que puede ser una buena práctica el presentar enmiendas separadas que se puedan someter a votación de manera individual. Pero hoy por hoy lo que tienen no es eso, tienen unos presupuestos presentados que se van a someter a votación y dos enmiendas por parte de dos Grupos, y la inseguridad radica precisamente ahí. Por supuesto que se pueden hacer in voce enmiendas transaccionales, porque fruto del debate y del acercamiento de posturas ha surgido la transacción y se presentan en el Pleno in voce. En su Grupo no tienen ningún inconveniente, cómo lo va a tener, en que se minoren o se creen algunas de las partidas que ellos han propuesto, pero igual, aunque no cree que es el caso, podrían tener algún inconveniente con las que plantea el Partido Socialista y que el Equipo de Gobierno propone aceptar. Pero, a su modo de ver, esa no es la cuestión, lo que hay que ver es si esto es una enmienda del Equipo de Gobierno a sus presupuestos o no lo es, y si se puede tramitar en este Pleno o no. Aunque su Grupo no tiene ningún inconveniente en votar, les parece importante llamar a las cosas por su nombre y también que sepan a qué atenerse, porque para modificar cualquier cosa, lee el informe de intervención y ve que había que informar y si no, se quedaba el presupuesto sobre la mesa.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteria EHBildu) erantzun du gaur goizean landu dutela proposamen hori eta kontu-hartzaileari galde

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteria EHBildu) responde que esta mañana han estado trabajando sobre esta propuesta y pueden

diezaioketela zer iritzi duen, eta horrekin in voce txostena izango litzatekeela. Eta gerta liteke hemen sortutako eztabaidan bertan, kasu hipotetiko batean, zerbait adostea, idazkariak edo kontu-hartzaileak txostena ezin egin izatea, baina hala ere bozkatu egingo litzateke. Hartara, ez da etorkizunaz ari, baizik esaten duena da berak pertsonalki araua horrela interpretatzen duela, baina, zalantzarik gera ez dadin, etorkizunean, Araudi Organikoa aldatzen denean, argi adierazi behar da zein den erdibideko zuzenketen metodologia. Araudi Organikoak ez du ia ezer esaten zuzenketa horien inguruan eta argiagoa izan beharko luke. Berriro dio gobernu-taldeak proposamen hori egin duela iruditzen zaielako aurrekontuan hobekuntzak sar ditzaketela eta horregatik bideratu beharko litzatekeela, baina oposizioko taldeek pentsatzen badute ez dituztela betetzen prozedura-baldintzak eta ez dute nahi bozkatzerik, mahai gainean uzten dute, edo iruditzen bazaie beste zuzenketa bat bezala bozkatu behar dela, zuzenketa bezala bozkatuko dute.

perfectamente preguntar a la Interventora qué opina sobre la misma, con o cual a partir de ahí hay también un informe in voce. Y podría ocurrir también que en el propio debate que aquí se genera, en un supuesto hipotético, se acordara algo que ni la Secretaria ni la Interventora pudieran informar, pero incluso así se votara. Por tanto, no está hablando del futuro, sino de que la interpretación que personalmente hace de esa norma es esta, pero en todo caso, para que no quede ninguna duda, en el futuro, cuando se haga la modificación del ROM, tiene que quedar bien expresada cómo es la metodología en el caso de las enmiendas transaccionales. El ROM no dice practicamente nada de esas enmiendas y debiera quedar más claro. Vuelve a insistir en que el Equipo de Gobierno hace esa propuesta porque cree que puede incorporar mejoras al presupuesto y que por ello habría que darle cauce, pero si los Grupos de la oposición piensan que no cumple los requisitos de procedimiento y no quieren que se vote, la dejan sobre la mesa, o si consideran que hay que votarla como otra enmienda más, se votará como otra enmienda más.

* Peña andreak (EAJ/PNV) erantzun du berak aurkako hausnarketa egingo lukeela, alegia, gobernu-taldea eta idazkaria guztiz ziur badaude, eta idatziz jarriko balute prozedura hau zuzenbidearen araberakoa dela, bozkatzeko, eta zalantzaren bat badute, mahai gainean uzteko.

* La Sra. Peña (EAJ/PNV) responde que ella haría la reflexión a contrario sensu, esto es, si el Equipo de Gobierno y la Secretaría están firmemente convencidos, y así lo pondría por escrito, de que este procedimiento se ajusta a derecho, que se vote, y si hay duda, que se deje sobre la mesa.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteria EHBildu) adierazi du berak eman duela iritzia, eta idazkariari dagokionez ─berekin hitz egin du─, eman dezala bere iritzia eta horren arabera jardungo dira.

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteria EHBildu) señala que su opinión personal ya la ha expresado, en cuanto a la Secretaria, con quien ya ha estado hablando, que diga su opinión y



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

procederán en consecuencia.

* Idazkari nagusiak adierazi du gaia aztertu dutela. Kontuan izan behar da erdibideko zuzenketaren kontzeptua, alegia, erabaki-organoak testu jakin bat hartzeko prozesuan sortzen den testua, prozesu horretan parte hartzen duten beste kide batzuk aurkeztutako beste zuzenketa batzuen izpirituarekin, bateratzeko, horrela testuaren inguruko adostasuna lortzeko. Hori da erdibideko zuzenketa baten izaera eta, ildo horretan, orain egin den proposamena uler daiteke transakzionatzeko proposamen gisa. Horren arabera, horrela transakzionatzeko ados egongo balirateke, proposamengileek zuzenean erretiratuko lituzkete aurkeztutako zuzenketa partzialak, eta ez badaude ados, zuzenketa gisa jorratuko litzateke besterik gabe.

* La Secretaria General señala que han estado analizando este asunto. Lo que hay que tener en cuenta es el concepto de enmienda transaccional, que se trata de aquella enmienda que en el proceso de adopción de un determinado texto por el órgano de decisión, es creada a partir del espíritu o la intención de otras enmiendas presentadas por otros participantes en dicho proceso para aunarlas, logrando así con ello generar el consenso en torno a dicho texto. Esa es la naturaleza de una enmienda transaccional y en ese sentido la propuesta que se hace en este momento se puede entender como una propuesta para transaccionar. En base a ello, en el caso de que se estuviera de acuerdo en transaccionarla en esos términos, se retirarían automáticamente, por los proponentes, las enmiendas parciales presentadas, y si no se estuviera de acuerdo, se trataría como una enmienda más.

* Maite Peñak (EAJ/PNV) adierazi du hori erdibideko zuzenketa dela eta ez transakzionatzeko zuzenketa bat, bozketagatik guztiak hala direla, baina bere taldeak ez duela erretiratuko aurkeztu duen zuzenketa.

* Maite Peña (EAJ/PNV) señala que eso es una enmienda transaccional y no una enmienda para transaccionar, que por vocación son todas, pero desde luego su Grupo no va a retirar la enmienda que ha presentado.

* Idazkari nagusiak adierazi du zuzenketa bozkatzeko bi aukera daudela, transakzionatzen bada, aurreko zuzenketak erretiratzen direla eta, transakzionatzen ez bada, hirugarren zuzenketa bat izango litzatekeela.

* La Secretaria General señala que las dos opciones que existen para votar esta enmienda son, si se logra transaccionar se retirarían las enmiendas anteriores, y si no se lograra transaccionar, sería una tercera enmienda más.

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du, orduan, zuzenketa bat dela hasieratik.

* La Sra. Peña (EAJ/PNV) señala que entonces se trata de una enmienda desde el inicio.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

* Idazkari nagusiak erantzun du erdibideko zuzenketa bat zuzenketa bat dela bere horretan. Zuzenketa erdibidekoa izan daiteke edo ez, baina zuzenketa da.

* La Secretaria General responde que una enmienda transaccional es una enmienda de por sí. La enmienda puede ser transaccional o no, pero es una enmienda.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteria EHBHildu) azaldu du transakzionatzeko aurkeztu dutela zuzenketa, onar dezaketela edo ez. Aurrez aurkeztutako zuzenketa partzialak atalka egin balituzte, gobernu-taldearena onartzeak eragingo luke erretiratzea etxebizitza hutsarekin, trafikoarekin eta Basanoagarekin zerikusia dutenak erretiratzea, taldeek aurkeztutako gainerako zuzenketak mantenduta. Baina orain gertatzen ari dena da zuzenketak blokean aurkeztu direla eta beraiek zuzenketa hau aurkeztu dutenean ezin direla erreferentzia egiten dieten epigrafeak bloketan banatu. Gobernu-taldeak aurrekontuak hobetu nahi ditu oposizioko taldeek egin dituzten ekarpenen arabera, eta horixe eskatu ohi diete. Hartara, lehenengo galdetuko luke onartzen duten ala ez, EAJk erantzun du, baina galdetuko lioke Alderdi Sozialistari zer iruditzen zaion, eta horren arabera aterako lituzkete eztabaidara, lehenengo EAJ/PNVren mozioa, ondoren Alderdi Sozialistarena eta azkenean gobernu-taldearena.

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteria EHBildu) explica que es una enmienda que se presenta a transacción, que se puede aceptar o no. Si las enmiendas parciales presentadas anteriormente fueran por apartados, el acepetar la del Equipo de Gobierno llevaría a retirar las enmiendas determinadas que tuvieran que ver con la vivienda vacía, con el tráfico y con Basanoaga, manteniéndose el resto de las enmiendas presentadas por los Grupos. Pero lo que está ocurriendo ahora es que las enmiendas han ido presentadas en bloque y cuando ellos presentan esta enmienda, no es posible que los epígrafes a los que hace referencia se puedan separar de los bloques. El Equipo de Gobierno quiere mejorar los presupuestos en función de las aportaciones que han hecho los Grupos de la oposición, que es una de las cosas que normalmente se suelen pedir. Por lo tanto, preguntaría primero si se acepta o no, cosa que el PNV ya ha respondido, pero preguntaría al Partido Socialista qué es lo que opina, y en función de esto se sacarían a debate, primero la moción de EAJ/PNV, luego la del Partido Socialista y al final la del Equipo de Gobierno.

* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du ustekabean harrapatu dituela, eta horrek ez duela esan nahi berriz jarrera adierazi behar dutela besterik. Eztabaida guztitik gehien harritu duena izan da nola aurkeztu duten, bere taldeari Bozeramaileen Batzordean izan dituzten

* El Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifiesta que les ha pillado de sorpresa, lo que no significa más que la sorpresa y que se tengan que volver a posicionar. De todo el debate lo que más sorpresa le ha producido es cómo lo presentan, después de que a su Grupo, en las diferente

bileretan adierazi ondoren beren zuzenketa-proposamena urgentziaz planteatu behar zutela txostenak egin behar zirelako, etab. Aldiz, orain ikusi dute hemen proposamenak aurkez daitezkeela, in voce. Ez du esaten hori ezin denik egin edo legezkoa ez denik, baina guztiz lekuz kanpo utzi ditu eta bere taldekideekin komentatzen ari zen bost minutuko atsedenaldi bat eskatuko zutela, aurrekontuaren puntu honi buruzko eztabaidarako prestatutako dinamika apurtu dielako. Horregatik, alkateak egoki baderitzo, bost minutuko etena eskatzen du.

reuniones que han tenido en Junta de Portavoces se les planteó la urgencia con que debían presentar su propuesta de enmienda porque requería de una serie de informes, etc. En cambio, ahora ven que se pueden presentar las propuestas aquí, in voce. No dice que esto no sea posible o que no tenga visos de legalildad, pero les ha descolocado completamente e incluso comentaba con sus compañeros la posibilidad de pedir cinco minutos de receso para volver a posicionarse, porque les ha roto la dinámica que habían preparado sobre lo que iba a ser el debate presupuestario en este punto. Por ello, si el Alcalde lo considera conveniente, pediría esos cinco minutos de receso.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteria EHBildu) adierazi du, alde batetik, prozedurari dagokionez, aukera dagoela erdibideko zuzenketak in voce aurkezteko, eta berriro dio hor egiten duten erdibideko zuzenketa bat dela. Hala ere, berriro dio Araudi Organikoak metodologia jaso behar duela argiago. Hori esanda, ez dago arazorik bost minutuko etena egiteko, agian denbora horretan erabaki baitezakete zer sarrera kendu oposizioko taldeek egindako zuzenketetatik, horrekin transakzionatu ahal izango lukete eta proposatzen duten erdibidekoaren alde bozkatu eta eztabaidaren gainerakoarekin jarraitu. Baina ikusi beharko litzateke sarreren aldaketek zer eragin dezaketen, eta abar, txostenean jaso denaren gainean.

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteria EHBildu) señala que por un lado, en cuanto a procedimiento, hay la posibilidad de presentar enmiendas transaccionales in voce e insiste en que se trata de una enmienda transaccional que se hace allí. No obstante, vuelve a insistir en que el ROM tiene que reflejar la metodología con bastante más claridad. Dicho esto, no hay problema en realizar un receso de cinco minutos, porque quizás en ese tiempo se pueden decir cuales son los ingresos que se quitan de las enmiendas presentadas por los Grupos de la oposición, con eso se podría transaccionar y votar a favor de la enmienda transaccional que proponen y continuar con el resto del debate. Pero habría que ver lo que pueden generar las variaciones de ingresos, etc., sobre lo que ya ha sido informado.

* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du agian hau guztia saihestu izango luketela telefono-dei batekin, nahiz eta goizeko azken

* El Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) señala que quizás se hubieran evitado todo esto con una simple llamada de teléfono aunque



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

orduan egin izan, eta jakinarazi gobernu-taldea hau lantzen ari zela eta aurkezteko asmoa zuela. Hau guztia saihestuko zuketen eta bere ustez askoz hobe izango litzatekeen.

fuera a última hora de la mañana, informándoles de que el Equipo de Gobierno ha estado trabajando en esto y que pretendían presentarlo. Se hubieran ahorrado todo este preámbulo y cree que hubiese sido mucho mejor.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteria EHBildu) adierazi du kontuan izango duela.

El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteria EHBildu) responde que toma nota de ello.

Jarraian, 19:35ean, bost minutuko atsedenaldia baimendu du.

Seguidamente, siendo las 19:35 h, autoriza un receso de cinco minutos.

**********

19:55ean ekin diote berriz bilkurari.

**********

Se reanuda la sesión a las 19:55 h.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteria EHBildu) hitza hartu du euskaraz, adierazteko jarraitu aurretik, eta aktan jasota gera dadin, komeniko litzatekeela kontu-hartzaileak adieraztea transakzionatzeko aurkeztu duten zuzenketaren inguruan duen iritzia. Hartara, kontu-hartzaileari eman dio hitza.

* Toma la palabra el Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteria EHBildu) manifestando en euskera que antes de continuar y para que quede constancia en el acta, sería conveniente que la Interventora mostrara su opinión sobre la enmienda que presentan para su transacción. Por tanto, da la palabra a la Interventora.

* Sánchez andrea kontu-hartzaileak euskaraz adierazi du zuzenketa aztertu duela, baina gainetik besterik ez. Kalkulu batzuk egin ditu ikusteko zenbatekoak bat zetozen, alde batetik gastuak murrizten dira, sarrera berriak aurreikusten dira, eta beste alde batetik planteatzen ziren beste gastu-aplikazio batzuk. Baita ere ikusten zen kapitulu bakoitzean izan zezakeen eragina, beste bi zuzenketekin egin den moduan. Txostena aurrerago eginda ere, zuzenketa hau aurrera atera ala ez, zuzenketa honek ez luke eragin berezirik izango aurrekontuaren egonkortasunean edo gastuaren iraunkortasunean eta aurrekontuak ez luke defizitik

* La Interventora Sra. Sánchez señala en euskera que la enmienda se ha analizado, pero se ha analizado por encima. Se han hecho unos cálculos para ver si las cantidades coincidían, por un lado se reducen gastos, se prevén nuevos ingresos y se planteaban por otro lado nuevas aplicaciones de gasto. También se veía la incidencia que podía tener en cada capítulo, como se ha hecho con las otras dos enmiendas. Aunque el informe se emitiría posteriormente, tanto si sale adelante esta enmienda, como si saliera otra, esta enmienda no tendría incidencia especial ni en la estabilidad presupuestaria, ni en la sostenibilidad del gasto,



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

izango ere, gastu eta sarrera arruntak nibelatuta egongo lirateke. Murrizteko proposatzen diren gastuen bideragarritasun teknikoari dagokionez, gaur goizean arkitektoarekin hitz egin dute eta horrek proposatzen denaren aldeko txostena egin du. Eragindako sarrerei dagokienez, esan dezake ez duela horren gaineko eraginik izango. Hartara, hasiera batean, bestelako analisirik gabe, pentsatzen du aurkeztutako mozioa bideragarria izango litzatekeela, nahiz eta txostena eta aurrekontua nola geldituko litzatekeen adierazteko argazkia ondoren egingo liratekeen.

tampoco el presupuesto presentaría déficit, los gastos e ingresos corrientes estarían nivelados. En cuanto a la viabilidad técnica de los gastos que se proponen reducir, esta mañana ha hablado con el Arquitecto quien ha emitido informe favorable a lo que se propone. Sobre los ingresos afectados, podría decir que no tiene incidencia sobre los mismos. Por lo que en principio y sin más análisis, piensa que la moción que se presenta sería viable, aunque el informe y la foto de cómo quedaría el presupuesto se harían posteriormente.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteria EHBildu) berriz galdetu die oposizioko taldeei onartzen duten ala ez transakzionatzeko aurkeztu duten zuzenketa.

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteria EHBildu) pregunta de nuevo a los Grupos de la Oposición si aceptan o no la enmienda que se propone para su transacción.

* Peña andreak (EAJ/PNV) euskaraz erantzun du bere taldeak ez duela onartzen.

* La Sra. Peña (EAJ/PNV) responde en euskera que por parte de su Grupo no aceptan.

* Rodríguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) erantzun du bere taldeak ere ez duela onartzen.

* El Sr. Rodríguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) reponde que su Grupo tampoco acepta.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteria EHBildu) adierazi du orduan EAJ/PNVri emango diola hitza bere zuzenketa defenda dezan; ondoren, talde sozialistari, berea defenda dezan, eta ondoren, hirugarrena bozkatuko luketela.

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteria EHBildu) señala que entonces dará la palabra a EAJ/PNV para que defienda su enmienda, posteriormente al Grupo Socialista para que defienda la suya y posteriormente sometería a votación la tercera.

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du aurrekontuak aztertuko dituela eta aurkeztu zuten zuzenketa azalduko duela; alde batetik proposatzen ditu gutxitzeak eta, bestetik, beste partida batzuk sortzea edo handitzea. Aurrekontuaren azterketari

* La Sra. Peña (EAJ/PNV) manifiesta que hará un análisis de los presupuestos y una exposición de la enmienda que presentaron, que conlleva minoraciones por un lado y la creación o incremento de otras partidas por otro. Como análisis de los



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

dagokionez, nahiz eta osoko zuzenketarik aurkeztu ez eta zuzenketa partzialen alde egin duten produktiboagoak izan daitezkeelako, kontuan izanda batez ere gaur egungo egoera ekonomikoa, bi gauza adierazi nahi ditu. Sarrerei dagokienez, ikusi dute zenbait ez daudela zehatz jasota, memorietan bertan jasotzen baita zalantzazkoa dela kobratzea ere; gainera, zenbaitek adierazpen nahiko esplizituak dituzte. Bestalde, urtetik urtera gertatzen den beste kontu bat da, beti erreferentzia bera, lokalen besterentzeak ez gauzatzeari buruzkoa. 2016ko aurrekontuan, ez da gauzatu, eta 2005ean egoera bera izan zen; orain aldatu dira 2017an besterentzea aurreikusten diren lokalak eta ikusiko da urtearen amaieran zenbateraino gauzatu diren. Daramaten ibilbidearekin uler dezakete lokalen salmenta geratuta dagoen arren, horrek erantzuten diola gehiago aurrekontuak koadratzeko teknika bati lokalak besterentzeko benetako espektatiba bati baino. Aurkeztu duten zuzenketan adierazitako partidetako gutxitzeari dagokionez, proposatzen dute publizitatean eta propagandan 40.000 € gutxitzea. Esan behar du proposamen horietan kontuan izan direla exekuzioa eta baimendutakoa. Ez ditu partida guztiak aipatuko, baina batzuk bai, adibidez, eraikuntzen ikuskaritza teknikoenean eta hirigune historikoa birgaitzekoan proposatzen dute 60.000 € gutxitzea, 50.000 euroko partida utzita. Hori bat dator gobernu-taldeak planteatutako zuzenketarekin, eta gutxitze honen arrazoia da ulertzen dutela hirigune historikoa berritu behar dela eta horregatik uzten dutela zenbateko hori; alabaina, eraikuntzen ikuskaritza teknikoei dagokienez, jabekideen elkargo guztiek bete behar dute eta ez zaie iruditzen bereizi behar direnik hirigune historikoan daudenak.

presupuestos, pese a no haber presentado enmienda a la totalidad y optar por enmiendas parciales que pueden ser más productivas, teniendo en cuenta sobre todo la coyuntura económica en que se encuentran, señalar dos cosas. En lo relativo a los ingresos, han apreciado falta de rigor a la hora de contemplar algunos de ellos, que ya desde la propias memorias se contemplan como de dudoso cobro, algunos además con expresiones bastante explícitas. Por otra parte, una cuestión que se reitera a lo largo de los años, viene a ser una constante siempre con la misma referencia, relativa a la inejecución de las enajenaciones de locales. En el presupuesto de 2016, a tenor de la ejecución es inexistente, en 2005 hubo la misma situación, en la actualidad se cambian los locales que se preven enajenar en 2017 y ya se verá a finales de ese año qué grado de ejecución tienen los mismos. Con la trayectoria que se lleva, pueden entender que pese al parón que hay en la venta de locales, esto viene respondiendo más a una técnica para cuadrar los presupuestos que a una expectativa real de enajenación de los mismos. En relación a la minoración de las partidas expresada en la enmienda que han presentado, en publicidad y propaganda plantean una moniración de 40.000 €. Hay que decir que en estas propuestas han tenido en cuenta la ejecución y también el autorizado. No va a mencionar todas las partidas, pero sí algunas, por ejemplo en las ITE-s y rehabilitación del casco histórico plantean una minoración de 60.000 €, dejando una partida de 50.000 €. Esto coincide con la enmienda que plantea el Equipo de Gobierno, y la razón de esta minoración viene determinada porque entienden que hay que actuar en la rehabilitación del casco histórico y por eso se deja esa cantidad, pero



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

Hondakinen prebentziorako planteatzen dute 75.000 € gutxitzea, partida beraren exekuzio-mailaren arabera. Atlantikaldian planteatzen zuten 122.000 € gutxitzea, 138.000 euroko partida utzita, iruditzen zitzaielako 250.000 € asko dela eta gehiago lotzen dutelako herriko jaiekin. Hirigune historikoko etxebizitza-planak iruditzen zaio azalpena merezi duela, partida hori kendu egin dutelako, baina ez beharrezkoa iruditzen ez zaielako etxebizitza-plan bat burutzea hirigune historikoan, baizik 100.000 eurorekin udalerri osoaren beharretarako sortzen duten beste partida orokor batean sartzen dutelako. Gastu juridikoetan eta Udalaren aldizkarian ere jarduten ziren, eta iruditzen zaio erraz ondoriozta daitekeela ez dela gutxitze aritmetiko bat soilik, baizik atzean helburu bat duela. Partidak handitzeko eta berriak sortzeko proposamenei dagokienez, bere taldeak ere prozesu parte-hartzaile bat egin ondoren, gaiak hiru taldetan planteatzen zituzten. Lehena zen hobetzea mugikortasuna oro har herriko trafikoaren eta aparkalekuan azterketa bat eginda eta Iztietako autobus-geltokia handitzeko proiektua, eragozpen handiak eragiten dituena, eta Galtzarabordako igogailua, goiko eta beheko auzoak lortzeko. Oso beharrezkotzat jo dute etxebizitza hutsa mobilizatzeko plana eta lehen aipatu dituzten alokairurako laguntzak, eta hirigune historikorako aurreikusitakoarekin lotzen dute. Oso garrantzitsua da baita ere, hainbatetan esan izan duten moduan, kuantitatiboki 50.000 eurokoa izan arren arreta berezia merezi duen partida bat, tokiko merkataritzako kontsumoa dinamizatzekoa eta elikadura osasungarria sustatzekoa, azken batean udalerriko ekonomia sustatzen baitu. Azkenik, arlo sozialari dagokionez, egiaztatu dute gizarte-

sin embargo, en lo relativo a las ITE-s, que es de obligado cumplimiento por todas las comunidades de vecinos, no entendían que hubiera que hacer una diferenciación con las ubicadas en el casco histórico. En Prevención de Residuos planteaban una minoración de 75.000 € a tenor del grado de ejecución de la misma partida. En Atlantikaldia planteaban una minoración de 122.000 €, dejándo la partida en 138.000 €, porque entendían que 250.000 € es una cantidad muy importante y lo asemejaban más a lo que resulta del gasto en las fiestas patronales. El Plan de vivienda del Casco Histórico cree que requiere de una explicación ya que eliminaban esa partida, no porque crean que no es necesario llevar a cabo una plan de vivienda en el Casco Histórico, sino porque lo englobaban en otra que creaban con 100.000 € para la necesidad de actuación en todo el municipio en general. En Gastos Jurídicos y Revista Municipal también actuaban, con lo que cree que se puede concluir facilmente que no se trata de una minoración simplemente aritmética, sino que tiene por detrás un objetivo perseguido. En lo relativo a las propuestas que hacían, tanto de incremento, como de creación de nuevas partidas, después de llevar a cabo también su Grupo un proceso participativo, planteaban las cuestiones en torno a tres grupos. El primero venía a mejorar la movilidad en general con un estudio de tráfico y aparcamiento en el Municipio y un proyecto de ampliación para la parada del Bus de Iztieta que tantas molestias genera y también del asecensor de Galtzaraborda para la conexión de los barrios altos y bajos. Señalaban también como muy necesario el plan de movilización de la vivienda vacía y ayudas al alquiler que antes ha mencionado y lo vinculaban con



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

babesaren inguruan aurrekontuak duen gorakadak ez diola erantzuten estaldura areagotzeari, baizik beste egoera bati. Diru gehiago dago etxez etxeko laguntza egiteko, baina ez dira ordu gehiago, eta arreta-ratioa ere ez da handitzen. Aitortu behar duena da gizarte-larrialdiko laguntzak handitzen direla, egia da osoko bilkura honetan hainbatetan azaldu izan direla behar guztiak estaltzearen alde eta egia da hor pauso bat eman dutela eta partida hori handitu dela. Baina beharrak estaltzeari dagokionez, horixe besterik ez dute ikusten, kontuan izanda abenduaren 27an sartuko litzatekeela indarrean gizarte-zerbitzuei buruzko legearen eskubide subjektiboa eta karteraren zabaltzea, eta nahiz eta sarreren kapituluan badagoen honi lotutako partida bat, aurrekontua aztertu ondoren, okerrik ez badute egin, ez dute ikusten ezer aurreikusi denik gizarte-inklusiorako eta mendekotasunerako ziurrenik beharrezkoak diren zerbitzuak zabaldu edo abian jartzeko. Horregatik planteatzen zuten 300.000 euroko partida bat Gizarte Zerbitzuen kartera eta eskubide subjektiboa garatzeko. Laguntza teknikoei dagokienez, ikusi dute kendu egin dutela, eta kontuan izanda zahartze aktiborako plan integralaren partidarekin lotura duela eta alde batera utzi gabe biztanleriaren zahartzea eta Errenteriaren soziologia, adineko asko dagoelako mendekotasunerako geroz ere arreta handiagoa behar dutenak, iruditzen zaie bi kontu horiek hobe jorra litezkeela mendekotasunak eragindako Errenteriako biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko. Proposamen horiek egiten dituzte aurrekontuak hobetzeko asmoarekin, noski. Egia da sarreren kontua kili-kolo egon daitekeela eta zenbait gastu, ez kopuruagatik bakarrik baizik kudeaketa politikoagatik ere, ez zaizkiela egokiak iruditzen. Hala

lo previsto para el Casco Histórico. También es muy importante, lo vienen repitiendo en varias ocasiones, una enmienda que pese a que cuantitativamente es de 50.000 €, creen que merece una consideración especial, se trata de la dinamización del consumo en el comercio local y la promoción de la alimentación saludable, en definitiva se trata de impulsar la generación de economía en el municipio. Por último estaba el ámbito social, han contrastado que en el aspecto de la protección social el incremento que tiene el Presupuesto no responde a un incremento de la cobertura sino a otra situación. Hay más dinero para llevar a cabo la ayuda domiciliaria, pero no redunda ni en un mayor número de horas, ni en un incremento en el ratio de atención. Lo que sí es de reconocer es el incremento en las Ayudas de Emergencia Social, es verdad que este Pleno se ha manifestado en diferentes ocasiones por cumplir las necesidades que haya y es verdad que ahí se ha dado un paso y se ha incrementado esa partida. Pero en cuanto a cobertura de necesidades es lo único que se aprecia, sin embargo y teniendo en cuenta que el 27 de diciembre entraría el derecho subjetivo de la Ley de Servicios Sociales y el despliegue de la cartera, y a pesar de que en el capítulo de ingresos hay una partida vinculada a esto, después de analizar el Presupuesto, salvo error, no ven que haya nada previsto para incrementar o poner en marcha servicios que seguramente serán necesarios en inclusión social y en dependencia. Por esto planteaban una partida de 300.000 € para desarrollar la cartera de Servicios Sociales y el Derecho Subjetivo. En el tema de las Ayudas Técnicas, que ven que se ha eliminado y teniendo en cuenta que está relacionado con la partida del plan integral de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

eta guztiz ere, azkenean gobernu-taldeak aurkeztu duen zuzenketa aurrera ateratzen bada, iruditzen zaio aurrekontu hori neurri batean hobetu egingo dela. Edonola ere, ez dute amore emango eta nahiz eta gaur zuzenketak onartu ez, urtean zehar lanean jarraituko dute ia baten bat sartzea lortzen duten.

envejecimiento activo, y teniendo en cuenta el envejecimiento de la población y la sociología que hay en Errenteria, donde hay mucha gente mayor con necesidades cada vez también mayores de atención a la dependencia, creen que son dos cuestiones que se podrían abordar para mejorar la calidad de vida de los vecinos y vecinas de Errenteria que ya se encuentran afectados por la dependencia. Son propuestas que desde luego se han realizado con el ánimo de mejorar el Presupuesto. Es cierto que la cuestión de los ingresos pueden estar un poco “kili-kolo” y que hay algunos de los gastos, no solo por cuestión de número sino también por gestión política que no les parecen adecuados. No obstante si al final la enmienda que ha presentado el Equipo de Gobierno sale adelante cree que en parte este Presupuesto va a mejorar. De todas maneras no cejarán en el empeño y aunque hoy no sean aprobadas esas enmiendas, seguirán trabajando a lo largo del año a ver si hay posibilidad de incorporar alguna.

* Collar jaunak (Errenteria IrabaziZ) adierazi du bere taldeari iruditzen zaiola gobernu-talde honen filosofia dela berritzea, guztien ongiaren alde lan egitea eta, proposamenak aurkezten dituenak aurkeztuta ere, udalerriarentzat onak badira, kontuan izatea. Aldaketa guztiz berritzaile hauekin, badakite denbora eman dutela, entregatutako lehen aurrekontu-proiektuan, eta jakitun dira gero beste proiektu bat etorri zela guztiek dakitenagatik, baina berriro dio iruditzen zaiola denbora eman duela lantzeko. Oposizioko bi taldeen zuzenketak irakurri dituzte eta ez dute ezer esateko, gero bozketan ikusiko da.

* Interviene el Sr. Collar (Errenteria IrabaziZ) manifestando que en su Grupo entienden que la innovación es la filosofía de este Equipo de Gobierno, trabajar por el bien común y vengan de donde vengan las propuestas, si son buenas para el Municipio, tenerlas en cuenta. Con estos cambios tan innovadores que han hecho, saben que han dado tiempo, tanto en el primer proyecto de presupuesto entregado, y son conscientes de que luego vino un segundo proyecto por las circunstancias que todos saben, pero insiste en que cree que ha dado tiempo a trabajarlos. Han leído las enmiendas de los dos Grupos de la oposición y no tienen nada que señalar ya que luego se llevarán a votación.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

* Txasko jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du harriduraz hartu dituztela EAJk aurkeztutako murrizketa batzuk, adibidez, enplegu-planetakoak, eta emakumeen etxean erdia baino gehiago kentzen duzue. Horrekin batera, harriduraz hartu dituzte diru-laguntzetako murrizketak, gastua murriztuz gero diru-laguntzetan eragin zuzena baitu.

* Interviene el Sr. Txasko (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando en euskera que, les extrañan algunas de las reducciones que presenta el PNV, por ejemplo las del Plan de Empleo o la reducción, a más de la mitad, de la Casa de la Mujer de la Organización Onbide. Unido a esto, también les sorprenden las reducciones que se generan en el apartado de las subvenciones económicas, porque si se reduce el gasto, automáticamente tiene incidencia sobre estas subvenciones.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du ondasunen besterentzearen atalean zati oso garrantzitsu bat dagoela, José Mª Usandizagako lokalen salmenta. Ez da inoiz atera salmentara eta aurten bidea egina dago ateratzeko, eta aterako da. Gauza bat da lokal batzuk saltzen saiatzea eta ez saltzea, eta beste bat da ez atera izana ere. Zalantzarik gabe, atera behar zituzten, baina ez da gertatu, eta espero dutena da ateratzen dituztenean ondo joatea eta aukera berriak zabaltzea.

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) explica en euskera que en el apartado de Enajenación de Bienes hay una parte muy importante, que es la venta de los locales de José M.ª Usandizaga. Eso no había salido nunca a la venta, este año el camino está abierto y saldrá a la venta. Una cosa es intentar vender unos locales y no poder venderlos, y otra cosa distinta es que ni tan siquiera salgan a la venta. Sin duda tenían que sacarlos y esperan que cuando lo hagan todo vaya bien y se abran nuevas oportunidades.

* Maite Peñak (EAJ/PNV) adierazi du saiatuko dela ondo adierazten gutxitzeko proposamenak egitera bultzatu dituzten arrazoiak. Oarsoaldeko Enplegu Planari dagokionez, kontua ez da inondik inora pentsatzen dutela ez dela inbertitu behar enplegu-planetan, baizik ez zitzaiela oso interesgarria iruditzen hor uztea poltsa batzuk gero gauzatzen ez direnak, pasatako aurrekontua baita 500.000 eurokoa eta abendua bitarte exekutatutakoa 69.000 euro. Horiek dira pasa dizkieten datuak eta horiekin lan egin dute, eta eragindako sarreraren aurreikuspena ez zegoen lotuta. Esan behar du eragindako sarrerak dituzten sarrera guztietan oso kontuz ibili direla

* Maite Peña (EAJ/PNV) señala que va a intentar dar cumplida explicación de los motivos que les han llevado a sus propuestas de minoración. En cuanto al Plan de Empleo de Oarsoaldea, no es que crean, ni de lejos, que no haya que invertir en planes de empleo, lo que no les parecía muy interesante es dejar ahí unas bolsas que luego no tienen ejecución, porque el presupuesto pasado es de 500.000 € y lo ejecutado a fecha de diciembre es de 69.000 €. Esos son los datos que les han pasado y con los que han trabajado y la previsión de ingreso afectado no se veía vinculada. Tiene que decir que en todas las partidas que tenían ingresos afectados, han tenido



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

gutxitzeak planteatzerakoan, oreka hori mantendu ahal izateko. Kasu honetan, adibidez, okerrik ezean, partida hau arretaz landu dute, eta hau izan da emaitza. Onbideren berrantolaketan 600.000 euroko aurrekontua dago, eta iruditzen zitzaien 250.000 eurorekin egin zitekeela, batez ere kontuan izanda memoria batean ez zela egiatzat ematen Emakumeen Etxea burutuko zela. Emakumeen Etxea egiten bada, Sailak aurkeztutako memorian jasotzen den moduan, ez daude egitearen aurka, inola ere ez, baina ulertu dute urte anitzeko batekin egin daitekeela, eta memoria arretaz irakurtzen badute, badirudi hori dela planteamendua. Lehen azaldu ez duen eta azalpen berezia merezi duen beste kontu bat da AEKren langabetuentzako ikastaroetako gutxitzea. Planteatu zuten partida hori kentzea, memorian esaten delako langabetuen ikastaroak Eusko Jaurlaritzaren konturakoak izango direla. Udal Euskaltegian partida hori gutxitu da zenbateko berean eta gainera adierazi da Eusko Jaurlaritzaren konturakoa izango dela, baina aurrekontuan 20.000 euroko partida bat sortu da langabetuen ikastaroak AEKk kudea ditzan.

mucho cuidado a la hora de plantear las minoraciones para que pudieran salvar ese equilibrio. En este caso en concreto, salvo error, han trabajado esta partida con detenimiento, dando ese resultado. En la reorganización de Onbide hay un presupuesto de 600.000 € y ellos entendían que se podría hacer con 250.000 € , sobre todo teniendo en cuenta que en una de las memorias no se daba como cierto el hecho de llevar a cabo la Casa de la Mujer. Si se hace la Casa de la Mujer, como está en la memoria que ha presentado el Área, no están en contra de que se haga, ni muchísimo menos, pero han entendido que podrían ir a un plurianual, y si se lee con detenimiento la memoria, aparece ese planteamiento. Otra de las cuestiones que no ha explicado antes y que merece una explicación especial es la minoriación de los cursos de AEK para desempleados. Plantearon eliminar esa partida porque la memoria dice que los cursos para desempleados correrán a cargo del Gobierno Vasco. En el Euskaltegi Municipal se minora esa partida por la misma cantidad y no entienden que si en el Euskaltegi se minora y además se señala que correrá a cargo del Gobierno Vasco, por otro lado se cree una partida con un presupuesto de 20.000 € para que los cursos de desempleados sean gestionados por AEK.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du enplegu-planen inguruan ez dakiela zehazki zer jasotzen den, baina egin diren kontratazioak eta exekutatzen ari dena dela EAJko bozeramaileak adierazitakoa baino askoz handiagoa. Aztertu beharko da exekuzio hori non eta nola islatzen den; kontratuak Oarsoaldearen bitartez egiten dira eta transferentziak egiten dizkiote eskatu

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) explica en euskera que en cuanto al Plan de Empleo no sabe exactamente lo que se recoge, pero desde luego las contrataciones que se han hecho y lo que se ha ejecutado es mucho mayor que lo manifestado por la portavoz del PNV. Habrá que ver esa ejecución dónde y cómo se refleja, los contratos se hacen a través de Oarsoaldea, a quien


C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

ahala, baina kontratazio horiek egiten ari dira eta ez badira 500.000 €, ez dira urruti ibiliko. Hori horrela da eta argi geratzea nahi du, bestela sentsazioa gera baitaiteke ez dela exekutatu enplegu-planaren partida hori. Nahi badute, hurrengo Bozeramaileen Batzordean edo Lehendakaritzako Batzordean argituko dute. Baina deialdiak atera dira, pertsonak kontratatu dira, lanean ari dira, eta horrek ez ditu 60.000 € suposatzen, baizik ia 500.000 €. Bestetik, emakumearen etxeari dagokionez, batzordean azaldu zuten asmoa zela emakumeen etxea egitekoa Onbide inguruan, badakizue prozesu parte-hartzaile bat burutzen ari dela eta hor esaten ari direla zer baldintza gutxi gorabehera komeniko liratekeen edukitzea, eta, zalantzarik gabe, EAJk planteatzen duen gutxitzearekin ezinezkoa da emakumeen etxea egitea. 600.000 eurorekin ere jada nahiko justu doa, eta bestela ezingo litzateke egin, berrurbanizazioko lan bat egin behar delako eta modulu batzuk jarri behar direlako; eta horrek guztiak ematen duena da gutxienez 600.000 € izatea, beraz, ez da ezer sobratzen eta guztia da emakumeen etxearentzako.

el Ayuntamiento hace transferencias en la medida que ellos lo solicitan, pero esas contrataciones se están haciendo y si la ejecución no llega, no andará lejos de los 500.000 €. Esto es así y quiere que quede claro porque si no, queda la sensación de que no se ha ejecutado esa partida del Plan de Empleo. Si quieren, en la próxima Junta de Portavoces o en la Comisión de Presidencia se aclarará este punto. Pero desde luego, han salido convocatorias, se han contratado personas que están trabajando y todo eso no suponen 60.000 €, sino que están hablando de unos 500.000 €. Por otro lado, en cuanto a la Casa de las Mujeres, se explicó en la Comisión que la intención es que se construyera en el entorno de Onbide, todo el mundo saben que se está llevando a cabo un proceso participativo y que del mismo están saliendo las condiciones que serían necesarias más o menos, para tenerlos, y, sin duda, con la minoración que plantea el PNV sería imposible hacer la Casa de las Mujeres. Ya con los 600.000 € va muy ajustado, por lo que de otra manera sería imposible hacerlo, porque ahí se da un trabajo de reurbanización y hay que poner unos módulos, con lo que el total da como mínimo esos 600.000 €, por tanto, no sobra nada y todo es para la Casa de las Mujeres.

* Peña andreak (EAJ/PNV) erantzun du hurrengo astean argituko dutela, baina haiek ez dutela begiratu Oarsoaldeko Planen partida, baizik zer exekuzio-maila zuen berariaz gutxitzea planteatu nahi duten partidak, eta ez soilik zein den exekuzio-maila, baizik zer baimendu maila duen.

* La Sra. Peña (EAJ/PNV) responde que ya lo aclararán la próxima semana, pero ellos no han mirado la partida de los Planes de Oarsoaldea, sino qué grado de ejecución tenía específicamente la partida que plantean minorar, y no solo qué grado de ejecución, sino qué grado de autorizado tenía.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) argitu du udal guztiek bezala, honek Eusko

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) aclara que como todos los Ayuntamientos,

Jaurlaritzarekin batera kudeatzen dituela enplegu-planak, baina aldi berean Udalak baduela Oarsoaldearekin hitzarmen bat enplegu-plan horiek gauzatzeko. Gertatuko dena da Oarsoaldeak oraindik ez dizkigula eskatu, baina dirua emango da kontratu horiek egiten ari direlako. Oarsoaldeak hiru partida ditu transferentzia horien baitan, bata da Oarsoaldea oro har, bestea euskarakoa eta hirugarrena enplegu-planetakoa. Ez du hori esaten EAJren proposamena baloratzeko, azaldu nahi duena da, esaten dutenez enplegu-planak ez direla gauzatzen, gauzatzen ari direla, kontratazioak egin direla eta diruaren ia % 100 konprometitua dagoela.

este gestiona junto al Gobierno Vasco los Planes de Empleo, pero a su vez el Ayuntamiento también tiene un convenio con Oarsoaldea para desarrollar esos Planes de Empleo. Lo que ocurrirá es que todavía Oarsoaldea no nos lo ha pedido, pero el dinero se entregará porque esos contratos se están haciendo. Oarsoaldea tiene tres partidas dentro de esas transferencias, una es de Oarsoaldea en general, otra enfocada al euskera y la tercera enfocada a los Planes de Empleo. No dice esto para valorar la propuesta del PNV, lo que quiere, cuando se dice que parece que los Planes de Empleo no se desarrollan, es explicar que se están desarrollando, que se han hecho contrataciones y que el dinero está comprometido casi en su 100%.

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du Emakumeen Etxeari dagokionez, egitearekin guztiz ados daudela, ez zituzten zenbaki horiek ezagutzen eta ikusiko dute nola doan aurrera.

* La Sra. Peña (EAJ/PNV) señala que en cuanto a la Casa de la Mujer están totalmente de acuerdo en que se haga, no conocían esas cuantificaciones y verán cómo se desarrolla.

Mintzaldiak amaitu dira.

Finalizadas las intervenciones.

EAJ-PNV udal taldeak 2017rako Ohiko Aurrekontu Proiekturako aurkeztutako zuzenketa partziala bozkatu da.

Sometida a votación la enmienda parcial al Proyecto de Presupuesto Ordinario para 2017 presentada por el grupo municipal de EAJ-PNV.

Udalbatzak aldeko 3 botorekin (EAJ-PNV), aurkako 11 botorekin (Orereta/Errenteria EHBildu, Errenteria Irabaziz) eta 7 abstentziorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) gehiengoz,

El Pleno de la Corporación por mayoría de 3 votos a favor (EAJ/PNV), 11 votos en contra (Orereta/Errenteria EHBildu, Errenteria IrabaziZ) y 7 abstenciones (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos),

**E R A B A K I   D U**

**A C U E R D A**

**Ez onartzea** EAJ-PNV udal taldeak 2017rako Ohiko Aurrekontu Proiekturako aurkeztutako zuzenketa

**No aprobar** la enmienda parcial al Proyecto de Presupuesto Ordinario para 2017 presentada por el



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

partziala.

Ondoren.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) talde sozialistari eman dio hitza, bere zuzenketa aurkez dezan.

* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) hau irakurri du gaztelaniaz: aurten ere iritsi dira aurrekontuak eta gure taldeak berriz ere zuzenketak aurkeztu ditu; beti bezala, adostasunera iristeko borondatea jarri dugu, batzuetan besteetan baino anbizio gehiagorekin, momentu bakoitzeko egoera sozio-ekonomikoaren arabera, baina beti aurrekontuak Errenteriako herritarren alde hobetzeko asmoz. Gaur hemen dugun aurrekontuari, sakon aztertu ondoren, ahultasun ugari aurkitu dizkiogu, hala enplegu-politiketan nola sozialetan edo mugikortasunekoetan; berriz ere hainbat kolektibo ahaztu dituzte, gazteak, edo gure ingurunea ahalik eta irisgarri eta duinena mantentzea. Aurrekontuaren memorian bertan adierazten den moduan, oraindik ere krisi-egoeran gaude eta kinka larrian utzi ditu herriko familia asko. Horregatik, Talde Sozialistarentzat funtsezkoa eta oinarrizkoa da ongizate-estatu duina mantentzea, eta gure zuzenketarekin proposatzen dugu ahal dugun neurrian egoera horiek hobetzea. Gure taldearentzat argi dago zer den garrantzitsuena, horregatik proposatzen dugu enplegurako partida 200.000 € handitzea, hartara langabezian dauden eta plan horietan sartuko diren pertsonen kopurua handitzeko, hori baita eska dezakegun gutxiena. Proposatzen dugu gazteen kolektiboarentzat 130.000 euroko laguntza bat jartzea, nahi badute emantzipatzeko

grupo municipal de EAJ-PNV.

Seguidamente.

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) da la palabra al Grupo Socialista para presentar su enmienda.

* Interviene el Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) dando lectura a lo siguiente: “un año más con los presupuestos y nuevamente nuestro grupo presenta enmiendas y como siempre hemos puesto voluntad de consenso, unas veces con más ambición que otras, dependiendo de las circunstancias socio económicas de cada momento, pero siempre intentando mejorarlos en favor de los ciudadanos y ciudadanas de Errenteria. Hoy estamos ante un presupuesto al que después de desgranarlo y estudiarlo le encontramos importantes puntos débiles, tanto en políticas de empleo, como sociales o de movilidad y colectivos nuevamente olvidados como son los jóvenes o en mantener nuestro entorno lo más accesible y digno posible. Como ya se indica en la propia memoria del presupuesto la situación de crisis persiste y ha dejado en precaria situación a muchas familias de la villa. Por ello, para el Grupo Socialista es fundamental y básico sostener un estado de bienestar digno y proponemos con nuestra enmienda, mejorar en lo posible estas situaciones. Para nuestro grupo lo importante está medianamente claro, por ello proponemos aumentar la partida de empleo en 200.000 € y con ello ampliar el número de personas en paro que puedan entrar en los mismos es lo mínimamente razonable que podemos pedir. Proponemos una ayuda al colectivo de jóvenes de 130.000 € para poder emanciparse si lo desean o

aukera izan dezaten edo beren garapenerako ezinbestekoa den proiektua abian jar dezaten, ez baita bidezkoa haien agonia beste urtebete luzatzen jarraitzea. Proposatzen dugu mugikortasuna laguntzea igogailuak eraikita: 500.000 € Galtzarabordakorako, herriaren goiko eremuetarako sarbideak hobetzeko eta adinduen mugikortasuna laguntzeko beharrezkoa delako. Proposatzen dugu udal-plan bat osatzea energia-pobretasunaren aurka, oinarrizkoa delako eta frogatuta dagoelako beharrezkoa dela egoera horretan dauden pertsonentzat. Halaber, udal-arduradunak garenez, gure betebeharra da herrian egoera oso txarretan dauden hainbat puntu birgaitzea eta txukuntzea, eta horregatik hiri-altzariak kontserbatzeko eta mantentzeko plan bat planteatzen dugu, bai eta beste partida txikiago batzuk ere, nahiz eta horiek ere beharrezkoak izan. Bistakoa da gauzak egiten direla, hori ez dugu ukatuko, baina ez dugu uste nahikoa denik edo garrantzi nahikoa dutenik zenbait partidetan, bereziki arlo sozialari dagokionez. Hori esanda, argi dago talde sozialistak ez duela babestu gobernu-taldeak 2017rako mahai gainean jarri duen aurrekontu-proposamena, gure ustez falta zaizkiolako gure bizilagunen beharretarako egokiagoak diren politikak, langabetuak eta gazteak bezalako kolektiboen egungo arazoekiko sentikorragoak direnak edo mugikortasuna eta merkataritza babesten dituztenak. Horregatik aurkeztu dituzte zuzenketa hauek, 1.112.000 euroko guztizkoarekin eta hainbat partida jarri dituzte gutxitzeko.

emprender un proyecto que es vital para su desarrollo, no siendo de recibo el seguir alargando su agonía un año más. Proponemos favorecer la movilidad con la construcción de ascensores, 500.000 € en esta ocasión en el de Galtzaraborda ya que es necesario para mejorar los accesos a las zonas altas de la ciudad y a su vez facilitar la movilidad de las personas mayores. Proponemos que la creación de un plan municipal contra la pobreza energética es básico y está demostrada su necesidad ante la cantidad de personas que la padecen. Igualmente rehabilitar y adecentar diferentes puntos de la ciudad que están en pésimas condiciones es una de nuestras obligaciones como responsables municipales, por ello también planteamos una plan municipal de conservación y mantenimiento de mobiliario urbano, así como otras partidas menos importantes pero no por ello innecesarias. Por supuesto que se hacen cosas, no lo vamos a negar, pero no creemos que las suficientes o con la suficiente importancia en algunas de sus partidas y especialmente en lo social. Es por lo que nuestra enmienda intenta a nuestro entender, corregir o mejorar estos aspectos. Dicho esto, está claro que el grupo municipal socialista no va a apoyar la propuesta de presupuesto que el equipo de gobierno nos pone en la mesa para 2017 ya que adolece a nuestro entender de políticas más acordes con las necesidades de nuestros vecinos y vecinas, más sensibles con la problemática actual de colectivos como los parados, los jóvenes o el apoyo a la movilidad y al comercio." Por ello presentan estas enmiendas con un total de 1.112.000 € y aportan una serie de partidas para minorarlas.

* Collar jaunak (Errenteria IrabaziZ) euskaraz adierazi du zuzenketa ikusita ez dutela lerro gorririk jartzen, irakurri dituzte, ulertu dituzte, baina EAJren zuzenketekin bezala, kontu-hartzailearen txostena ikusita, harritu dituena da proposamen asko zirela partidak gutxitzeko, eta gutxitze horiek sarrerei eragiten zietela. Baina bereziki batek eman die arreta, Beraungo kultura-etxearenak, hori diru-laguntza batzuekin lotuta zegoelako eta horrek, lehenengo begiradan, harritu egin ditu. Bestalde, bere taldeak enplegu-planen aldeko apustua egin du, talde sozialistak bezalaxe, eta aurrera egingo dute.

* Interviene el Sr. Collar (Errenteria IrabaziZ) manifestando en euskera que a la vista de las enmiendas no ponen líneas rojas, las han leído, las han entendido, pero al igual que con las enmiendas del PNV y viendo también el informe de Intervención, les llaman la atención algunas de las propuestas de minoración de ciertas partidas que al bajar afectan a los ingresos. Especialmente les llama la atención la relativa a la Casa de Cultura de Beraun, ya que estaba vinculada a unas ayudas y eso, en un primer vistazo les chocaba. Por otro lado, su Grupo apuesta por los Planes de Empleo, también lo hace el Grupo Socialista, por lo que irán adelante.

* Txasko jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du EAJren inguruan esan duen moduan, zuzenketa honek ere harridura eragin diela. Bereziki emakumeen etxean proposatzen dutelako aurrekontua erdira jaistea. Baina harritu ditu hondakinen prebentzioko jarduna ere erdira jaistea; gauzak dauden bezala, kontraesana iruditzen zaie. Horretaz gain, argiztapen publikoan 100.000 € kendu nahi dituzte, horrek suposatzen duela herri guztiko lana atzeratzea. Eta Beraungo liburutegiaren partidan heren bat kentzen dute, 150.000 €, ez daki horrekin gauzen erdia edo laurden bat egingo duten; harrituta geratu dira. Baina muturreko harridura eragin diena izan da hainbestetan esan ondoren mantenua hobetu behar zela, bankuak, zakarrontziak eta bestelako hobekuntzak egin behar zirela, partida horretan ere murrizketak proposatzea, eta horrek hitzik gabe utzi du.

* Interviene en euskera el Sr. Txasko (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que, al igual que ha manifestado en el caso del PNV, esta enmienda también les ha sorprendido. En especial, en la Casa de la Mujer donde propone reducir el presupuesto a la mitad. También es sorprendente el caso de la actuación en la prevención de residuos, donde proponen reducirlo a la mitad y tal y como están las cosas, esto les parece contradictorio. Aparte de eso, quieren quitar 100.000 € de la partida de alumbrado público, con el retraso que eso supondría en el trabajo que se está haciendo en el Pueblo. En la Biblioteca de Beraun quieren reducir la partida en un tercio, esto es 150.000 €, y no sabe si con esto harían la mitad o un cuarto de lo que hay que hacer, pero en todo caso les produce extrañeza. Pero el colmo de la extrañeza se la produce el hecho de que en cuestiones que tantas veces se les ha dicho que había que hacer, como poner bancos, papeleras, y otras mejoras, se les planteen reducciones en la partida prevista para estas cuestiones, esto sí que le deja sin palabras.

* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du bilera bat egin zutela, Bilduko bozeramaileak aipatu nahi izan ez duena, eta bertan hitz egin zutela hainbat urtetan egin zitezkeen kontuez, hain zuzen ere Talde Sozialistak proposatzen duena. Edonola ere, hori da beren aurrekontua, gobernu-taldeak berea duen moduan. Adibidez, Emakumeen Etxea; ez daude aurka, baina Udalaren instalazioak orain dauden bezala, iruditzen zaie aukera badagoela beste nonbait egiteko. Baina berriro dio hori Alderdi Sozialistaren planteamendua dela, zuek beste bat duzue eta ez dago horri buruz esateko asko gehiago.

* El Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) señala que hubo una reunión, que no ha querido mencionar el portavoz de Bildu, en la que hablaron sobre cuestiones que se podrían hacer plurianualmente, que es la propuesta que hacía el Grupo Socialista. De todas formas, ese es su presupuesto, como el Equipo de Gobierno tiene el suyo. Por ejemplo, la Casa de la Mujer, que no están en contra de ello, pero tal y como están ahora mismo las instalaciones municipales, creen que cabe la posibilidad de hacerla en otro sitio. Pero insiste en que ese es el planteamiento del Partido Socialista, ustedes tienen otro y no hay mucho más que hablar al respecto.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) erantzun du primerakoa dela, bakoitzak bere aurrekontua duela, baina komentatu nahi duela etengabe prentsan kritika jaso dutela hiri-mantenua utzita daukatela, batez ere bankuen eta zakarrontzien egoeragatik. Eta hain juxtu ere zakarrontziak eta bankuak erosteko partida bat proposatu dutenean, harrituta daude gutxitzea proposatu dietelako. Baina hala da, bakoitzak bere aurrekontuak ditu, nahiz eta batzuk ez dituzten oso ondo ulertzen besteenak.

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) responde que es genial, cada uno tiene su propio presupuesto, pero sí que quiere comentar que se han encontrado constantemente con la crítica en prensa de dejación en mantenimiento urbano, sobre todo por el estado de los bancos y las papeleras. Y justamente cuando proponen una partida para adquisición de papeleras y bancos, les sorprende que les propongan disminuirla. Pero efectivamente, cada uno tiene sus propios presupuestos, aunque algunos no entiendan muy bien los de los demás.

* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du zuzenketan baita ere planteatzen zela gai horietarako plan bat, eta hori hitz egin zezaketela, eta bi urtekoak ere sartzen zirela. Baina ez dutenez eztabaidatzeko aukerarik izan, ezin izan dute gauza bakoitzerako azalpenik eman.

* El Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) señala que en la enmienda también planteaban un plan para estos temas, y ahí podían haber hablado, y también entraban los bianuales. Pero como no han tenido opción de debatirlo, no han podido dar las explicaciones que tenían para cada cosa.

Amaitu dira mintzaldiak.

Finalizadas las intervenciones.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos udal taldeak 2017rako Ohiko Aurrekontu Proiekturako aurkeztutako zuzenketa partziala bozkatu da.

Sometida a votación la enmienda parcial al Proyecto de Presupuesto Ordinario para 2017 presentada por el grupo municipal de Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos.

Udalbatzak aldeko 7 botorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos), aurkako 11 botorekin (Orereta/Errenteria EHBildu, Errenteria Irabaziz) eta 3 abstentziorekin (EAJ-PNV), gehiengoz,

El Pleno de la Corporación por mayoría de 7 votos a favor (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos), 11 votos en contra (Orereta/Errenteria EHBildu, Errenteria IrabaziZ) y 3 abstenciones (EAJ/PNV),

**E R A B A K I   D U**

**A C U E R D A**

**Ez onartzea** Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos udal taldeak udal taldeak 2017rako Ohiko Aurrekontu Proiekturako aurkeztutako zuzenketa partziala.

**No aprobar** la enmienda parcial al Proyecto de Presupuesto Ordinario para 2017 presentada por el grupo municipal de Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos.

Ondoren.

Seguidamente.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du lehen azaldu duen zuzenketa bi zatitan bozkatuko dutela, batetik Plan Orokorreko akatsen zuzenketa, eta, bestetik, erdibideko zuzenketa gisa proposatzen den zuzenketa. Lehenengo bozkatuko dute erdibideko zuzenketa gisa proposatzen dutena, eta, ondoren, akatsaren zuzenketa.

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) señala en euskera que, la enmienda que antes se ha expuesto la votarán en dos partes, por un lado la corrección de errores del Plan General y por otro la enmienda que se pretende transaccionar. En primer lugar votarán la enmienda que se pretende transaccionar y luego la subsanación de la incorrección técnica.

Amaitu dira mintzaldiak.

Finalizada la intervención.

Gobernu Taldeak 2017rako Ohiko Aurrekontu Proiekturako aurkeztutako zuzenketa bozkatu da, akats teknikoa zuzentzeko zatia izan ezik.

Sometida a votación la enmienda al Proyecto de Presupuesto Ordinario para 2017 presentada por el Equipo de Gobierno, excluída la parte relativa a la subsanación de la incorrección técnica,

Udalbatzak aldeko 11 botorekin (Orereta/Errenteria EHBildu, Errenteria Irabaziz), aurkako 7 botorekin

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a favor (Orereta/Errenteria EHBildu, Errenteria



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

(Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos), eta 3 abstentziorekin (EAJ-PNV), gehiengoz,

**E R A B A K I  D U**

**Onartzea** Gobernu Taldeak 2017rako Ohiko Aurrekontu Proiekturako aurkeztutako zuzenketa, akats teknikoa zuzentzeko zatia izan ezik.

Ondoren.

Gobernu Taldeak aurkeztutako zuzenketa agertzen den akats teknikoa bozkatu da.

Udalbatzak aldeko 21 botorekin (Orereta/Errenteria EHBildu, Errenteria Irabaziz, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ-PNV, gehiengoz,

**E R A B A K I  D U**

**Onartzea** Gobernu Taldeak aurkeztutako zuzenketa agertzen den akats teknikoa konpontzea.

Ondoren.

**Gobernu taldeak 2017rako Ohiko Aurrekontu Proiektuari** Gobernu Taldeak aurkeztutako **zuzenketa osorik hartuta sartzea.**

Udalbatzak aldeko 11 botorekin (Orereta/Errenteria EHBildu, Errenteria Irabaziz) eta aurkako 10 botorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ-PNV, gehiengoz,

IrabaziZ), 7 votos en contra (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) y 3 abstenciones (EAJ/PNV),

**A C U E R D A**

**Aprobar** la enmienda al Proyecto de Presupuesto Ordinario para 2017 presentada por el Equipo de Gobierno, excluída la parte relativa a la subsanación de la incorrección técnica.

Seguidamente.

Sometida a votación la subsanación de la incorrección técnica reflejada en la enmienda presentada por el Equipo de Gobierno.

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 21 votos a favor (Orereta/Errenteria EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV),

**A C U E R D A**

**Aprobar** la subsanación de la incorrección técnica reflejada en la enmienda presentada por el Equipo de Gobierno.

Seguidamente.

**Incluída en su conjunto la enmienda al Proyecto de Presupuesto Ordinario para 2017,** presentada por el Equipo de Gobierno.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a favor (Orereta/Errenteria EHBildu, Errenteria IrabaziZ) y 10 votos en contra (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV),

## E R A B A K I  D U

1.- 2017. ekitaldirako Errenteriako Udalaren Aurrekontu-proiektua onartzea, diru-sarreren zein gastuen zenbatekoa **52.411.901,00 €-**koa da.

2.- 2017. ekitaldirako Adinekoen Udal Egoitzako Patronatuaren Aurrekontu-proiektua onartzea, diru sarreren zein gaustuen zenbatekoa **5.712.500,00 €**koa da.

3.- 2017. ekitaldirako Errenteria Musikal Patronatuaren Aurrekontu-proiektua onartzea, diru-sarreren zein gastuen zenbatekoa **2.075.447,41 €**koa da.

4.- 2017. ekitaldirako Udal lurzoru-ondarean Aurrekontua onartzea, diru-sarreren zenbatekoa: **1.859.787,06 €**koa da. eta gastuen zenbatekoa **3.657.613,20 €**koa da.

5.- 2017. ekitaldirako Errenteriako Udalaren Aurrekontu-proiektu Kontsolidatua onartzea, diru-sarreren zein gastuen zenbatekoa, guztira: **60.199.348,00 €.**

6.- Konpromiso-kredituaren egoera onartzea, gastuen egoera: **1.800.000,00 €.**

7.- 2017ko Aurrekontua Exekutatzeko Udal Araua onartzea.

8.- Ekitaldiko inbertsioak finantzatzeko **2.100.000,00 €** mailegu bat eskatzea onartzea, merkatuko ohiko baldintzetan, interes-tasari dagokionez, 15 urteko amortizazioarekin eta 2 urteko gabe-aldiarekin, etab.

## A C U E R D A

1.- Aprobar el Proyecto de Presupuestos del Ayuntamiento de Errenteria para el ejercicio 2017, que en su Estado de Ingresos, al igual que en el de Gastos asciende a **52.411.901,00 €.**

2.- Aprobar el Proyecto de Presupuesto del Patronato de la Residencia Municipal de Ancianos para el ejercicio 2017, que en su Estado de Ingresos, al igual que en el de Gastos, asciende a **5.712.500,00 €.**

3.- Aprobar el Proyecto de Presupuesto de Errenteria Musikal para el ejercicio 2017, que en su Estado de Ingresos, al igual que en el de Gastos, asciendea **2.075.447,41 €.**

4.- Aprobar el Presupuesto del Patrimonio Municipal del Suelo (P.M.S.) para el ejercicio 2017, cuyo Estado de Ingresos asciende a **1.859.787,06 €** y el de Gastos a **3.657.613,20 €**.

5.- Aprobar el Proyecto de Presupuesto Consolidado del Ayuntamiento de Errenteria para el ejercicio 2017, cuyo Estado de Ingresos, al igual que el de Gastos asciende a **60.199.348,00 €.**

6.- Aprobar el Estado de Créditos de Compromiso, cuyo Estado de Gastos asciende a **1.800.000,00 €**.

7.- Aprobar la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria para el 2017.

8.- Aprobar la solicitud de un préstamo para financiar las inversiones del ejercicio por importe de **2.100.000,00 €** en las condiciones normales de mercado relativas a tipo de interés, amortización a 15



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

años con 2 de carencia, etc.

9.- Espedientea jende aurrean jarri hamabost laneguneko epean, behin iragarkia GAOean argitaratuta. 2017rako Aurrekontu Orokorra behin betiko onartuta geratuko da baldin eta, jendaurrean jarri eta handik hamabost lanegun igaro ondoren ez bada erreklamaziorik aurkezten.

9.- Exponer el expediente al público por plazo de quince días hábiles tras publicar el correspondiente anuncio en el BOG. El Presupuesto General para el ejercicio 2017, quedará definitivamente aprobado, si transcurrido el plazo de quince días hábiles de exposición al público, no se hubiese presentado reclamación alguna.

**12. Alkateak aurkeztutako mozioa, Mayors for Peace sareari atxikitzeari buruzkoa.**

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du proposamen hau alkatearen izenean aurkeztu dutela, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Bake Idazkaritzatik eskaera egin zietelako eta ikusten zutelako ez zela alderdi baten kontua. Gainera, Bakearen Alkateak Sarea da eta egokiena iruditu zitzaion mozio hau pertsonalki aurkeztea. Sare hau martxan jarri zuten Hiroshima eta Nagasakiko alkateek, mundu mailan hainbat alkate biltzeko. 1999tik dago erregistratua Nazio Batuen Erakundean eta 1991tik aholkularitza estatusa du. Mundu osoko 161 herrialdetako 7.000 herri daude sare honetan, eta horietatik 300, Estatu mailan. Helburua da arma nuklearrak ezabatzea eta horretarako epe batzuk ezartzen dira, zehazki, 2020. urtea. Baina ez da hori bakarrik bultzatzen, baizik bultzatzen da herri desberdinen arteko sarea sortzea bakearekin, bizikidetzarekin, gatazken konponketarekin eta abarrekin zerikusia duten gaiak sustatzea eta kolaboratzea. Eusko Jaurlaritzako Bake Idazkaritzatik proposatu zieten sare horretan sartzea,

**12. Moción presentada por el Alcalde en relación a la adhesión a la red de Mayors for Peace.**

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) explica en euskera que esta moción se presenta en nombre del alcalde porque, entre otras cosas, es una solicitud recibida de la Secretaría por la Paz del Gobierno Vasco y porque veían que no es una cuestión de Grupos Políticos. Además, se trata de la Red de Alcaldes por la Paz y le ha parecido lo más adecuado presentar la moción personalmente. Esto concretamente es una red que pusieron en marcha los alcaldes de Hiroshima y Nagasaki para unir a diferentes alcaldes a nivel mundial. Está registrada desde 1999 en la Organización de Naciones Unidas y desde 1991 tiene estatus consultivo. Están en esta Red más de 7.000 municipios de 161 países de todo el mundo y de estos, 300 en el Estado. El objetivo que se persigue es la desaparición de las armas nucleares, y para ello se proponen diversas fechas, concretamente, el 2020. Pero no es esto únicamente lo que se persigue, sino que también tiene como fin generar una Red entre distintos pueblos que tienen la paz, la



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

egoki ikusi du eta Udalbatzari proposatzen dio onartzea.

convivencia, la resolución de conflictos, etc. entre sus objetivos, para su promoción y colaboración. Desde la Secretaría por la Paz del Gobierno Vasco les han propuesto entrar en esta Red, personalmente lo ve adecuado y por ello se lo propone al Pleno.

Ondoren.

Seguidamente.

Mozio hau irakurri dute:

Leída la siguiente moción:

"Arma Nuklearrak Erabat Abolitzeko Hirien arteko Elkartasuna Sustatzeko Programa berria proposatu zuen, 1982an, Hiroshimako alkateak, New Yorkeko Nazio Batuen Erakundeko egoitzan. Harrez geroztik, Hiroshimako eta Nagasakiko alkateek mundu osoko alkateei eskatu diete haiekin bat egin dezaten programa horren alde. Halaxe jaio zen, hain zuzen, *Mayors for Peace* sarea (Alkateok bakearen alde). Ekimen hori 1990etik dago erregistratuta Nazio Batuen Erakundean, eta 1991n aholkularitza-estatus berezia eman zioten Nazio Batuen Erakundeko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan.

"En 1982, en la sede de Naciones Unidas de Nueva York, el alcalde de Hiroshima propuso un nuevo Programa para Promover la Solidaridad entre Ciudades para la Abolición Total de las Armas Nucleares. Desde entonces, los alcaldes de Hiroshima y Nagasaki han pedido a los alcaldes de todo el mundo que se les unan en apoyo de este Programa. Así nació la red de Mayors for Peace (Alcaldes por la Paz). Desde 1990, esta iniciativa está registrada en Naciones Unidas y en 1991 le fue otorgado un estatus consultivo especial en el Consejo Económico y Social de la ONU.

Gaur egun, mundu osoko 161 herrialdetako 7.000 udalek baino gehiagok adierazi dute babesten dutela *Mayors for Peace* sareak bultzatzen duen programa arma nuklearrak 2020an eliminatzeko, hau da, Hiroshimako eta Nagasakiko bonbardaketa nuklearren 75. urtemugan. Espainiako estatuko 300 udalerri inguru atxikita daude Sareari.

Actualmente, más de 7.000 municipios de 161 países de todo el mundo han expresado su apoyo al programa que impulsa Mayors for Peace para conseguir la eliminación de las armas nucleares en 2020, cuando se cumplan 75 años de los bombardeos atómicos de Hiroshima y Nagasaki. Unos 300 municipios españoles ya están adheridos a la Red.

Munduak gainditu beharreko erronkak direla eta, bakea lortzeko erantzukizuna duten eragile guztien aliantza behar da. Eta halaxe dela onartzen du Garapen Jasangarriko Helburuen 2030 Agendak,

En el momento presente, los desafíos a los que el mundo se enfrenta deben contar con la alianza de todos los actores con responsabilidad para alcanzar un mundo en paz. La Agenda 2030 de los Objetivos



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

zehazkiago 16. helburuaren bidez, zeina garapen jasangarria lortzeko gizarte baketsuak sustatzeari buruzkoa baita.

de Desarrollo Sostenible (ODS) así lo reconoce, en concreto a través del ODS 16, que trata de la promoción de sociedades pacíficas para el desarrollo sostenible.

Hirien jarduera politikoak berezkoa dauka nazioarteko eragile eta elkarbizitza baketsuaren bermatzaile gisa hiriek betetzen duten eginkizuna. Siriako gatazka eta errefuxiatuen krisia edo terrorismoaren eta biolentziaren forma berrietatik ondorioztatutako mehatxuak, esate baterako, ezin dira udal-ikuspuntutik eta ekarpenetik kanpo geratu.

El papel de las ciudades como actores internacionales y garantes de la convivencia pacífica son asuntos naturales de su actuación política. Hoy, conflictos como el de Siria y la crisis de refugiados o las amenazas a la seguridad derivadas de nuevas formas de terrorismo y violencia, no pueden quedar al margen de la visión y contribución local.

Testuinguru horretan, tokiko gobernuek eginkizun erabakigarria dute eragile nagusiak diren aldetik, eta ez soilik gatazken prebentzioaren eszenatokian, non gero eta garrantzi handiagoa duten estatuekin batera; izan ere, gatazken ondoren hiriak berreraikitzeko egin beharreko lanetan eta bake-kulturaren inguruko heziketa-lanean ere badute zer eginik.

Es en este contexto en el que los Gobiernos Locales poseen un papel crucial como actores principales, no solo en el escenario de prevención de conflictos, ámbito en el cual cada vez tienen más relevancia junto a los Estado, sino también en las labores de reconstrucción de las ciudades después de los conflictos y en la tarea educativa en torno a la cultura de paz.

Tokiko gobernuak herritarren eskaeren eta premien bideratzaile zilegiak dira, demokratikoki aukeratu dituzten herritarrengandik gertu daudelako. Gainera, tokiko kudeaketan duten esperientziari esker, udal-arloko eguneroko gertakizunen alde guztiak ezagutu ditzakete zehatz-mehatz. Horrenbestez, bizikidetza baketsua sustatzen eragiteko duten gaitasunarengatik, hain zuzen, beren estatus espezifikoa dute, estatuek eta gizarte zibilak betetzen dutenaren osagarria dena.

La proximidad de los gobiernos locales a la ciudadanía que les ha elegido democráticamente les convierte en legítimos canalizadores de sus demandas y necesidades. Su experiencia en materia de gestión local les permite, además, conocer con detalle todos los aspectos del día a día de lo que sucede en el ámbito municipal. Tienen, por lo tanto, una posición específica y complementaria al rol que juegan los Estados y la sociedad civil, precisamente por su capacidad de influencia en la promoción de los valores cívicos y de la convivencia pacífica.

Tokiko gobernuek modu askotan lagundu dezakete bakea eraikitzen, eta, ildo horretan, Hirien

Son múltiples las formas en que los Gobiernos Locales pueden colaborar en la construcción de la



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

Diplomaziak haien zati garrantzitsu bat hartzen du. Hala, bada, Eskualdetako Lantaldeak honela definitu zuen Hirien Diplomazia: “tresna honen bidez, tokiko gobernuek eta haien organoek hau guztia sustatu dezakete mundu osoan: kohesio soziala, ingurumen jasangarria, krisiaren prebentzioa, gatazken konponketa, bai eta gatazken ondoren egin beharreko berreraikitze-lana ere; hori guztia ingurune egonkorra lortzeko helburuz, non herritarrek bakean bizi ahal izango baitira elkarrekin, giro demokratiko, aurrerakoi eta oparoan” [DOUE C 120/01, 28.5.2009].

paz y, en este sentido, la Diplomacia de Ciudades engloba una parte importante de ellas. Así, la Diplomacia de Ciudades fue definida por el Comité de las Regiones como el “instrumento a través del cual los Gobiernos Locales y sus órganos pueden fomentar a escala mundial la cohesión social, el medio ambiente sostenible, la prevención de la crisis, la resolución de conflictos, así como la labor de reconstrucción después de los conflictos, y todo ello con el objetivo de crear un entorno estable en el cual los ciudadanos puedan coexistir en paz en un clima de democracia, progreso y prosperidad” [DOUE C 120/01, 28.5.2009].

Orobat, ezin ukatuzkoa da gaur egun hiriek garrantzi handiko eginkizuna betetzen dutela nazioarteko lankidetza-arloan. Administrazio horiek beren herritarren izenean erantzukizuna dutela sentitzen dute, eta munduko beste leku batzuen garapen demokratikoan laguntzearen abantailez jabetuta, parte hartzen dute nazioarteko lankidetza-proiektuetan eta beste herrialde batzuetako administrazioekin esperientziak trukatzen.

Asimismo, resulta innegable que, en la actualidad, las ciudades desempeñan un papel de gran importancia en el campo de la cooperación internacional. En nombre de sus ciudadanos, dichas administraciones sienten la responsabilidad y perciben las ventajas de contribuir al desarrollo democrático en otros lugares del mundo, por lo que participan en proyectos de cooperación internacional y en el intercambio de experiencias con administraciones de otros países.

Tokiko gobernuek sarearen bidez egiten duten lana ezinbestekoa da nazioarteko eremuan duten eginkizuna indartzeko eta herritarren premiei erantzuna emateko. Hala, bakearen aldeko alkateen sarearen barruan parte hartzeak aukera ematen die bake-kulturaren arloko baliabideak eta esperientziak partekatzeko mundu osoko beste hiri, entitate eta antolakundeekin, eta, aldi berean, nazioarteko eremuetan humanitatean eragina duten gai handiei buruz iritzia emateko.

El trabajo en red de los Gobiernos Locales es un elemento imprescindible para fortalecer su papel en el ámbito internacional y dar respuesta a las necesidades de la ciudadanía. La colaboración en el seno de la red de Alcaldes por la paz permite compartir recursos y experiencias en el ámbito de la cultura de paz con otras ciudades y con entidades y organizaciones de todo el mundo, al mismo tiempo que permite dar voz a los municipios en los ámbitos internacionales sobre los grandes temas que afectan a la humanidad.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

Uste osoa dugu, aipatutako guztiarengatik, tokiko gobernuek garapenerako eta bakea eraikitzeko nazioarteko agendan laguntzeko erantzukizuna dutela.

Es por ello que, desde el convencimiento que los gobiernos locales tienen la responsabilidad de contribuir a la agenda internacional para el desarrollo y la construcción de la paz.

Kontuan hartuta arma nuklearrek pertsonen eta planetaren segurtasuna arriskuan jartzen dutela, premiazkoa da suntsipen masiboko armok debekatzeko itun unibertsala egitea.

Considerando el peligro que suponen las armas nucleares para la seguridad de las personas y del planeta, es urgente que se adopte un tratado universal que prohíba dichas armas de destrucción masiva.

*Mayors for Peace* sareak mundu baketsua eta arma nuklearrik gabea lotzeko lan egiten duenez,

Dado que Mayors for Peace trabaja para conseguir un mundo en paz libre de armas nucleares.

Udaleko Osoko Bilkurak jarraian azaltzen diren akordioak hartzen ditu:

El Pleno municipal adopta los acuerdos siguientes:

*1. Mayors for Peace* sarearen helburuen alde agertzen gara, bat eginez arma nuklearrak erabat desagerrarazteko helburuarekin.

1. Manifestar el apoyo a los objetivos de Mayors for Peace y solidarizarse con el objetivo de lograr la eliminación total de las armas nucleares.

*2. Mayors for Peace* nazioarteko sareari atzikitzeko behar diren tramite guztiak egingo ditugu.

2. Llevar a cabo los trámites necesarios para la adhesión a la red internacional Mayors for Peace.

*3. Mayors for Peace* sarea ezagutaraztea bultzatuko dugu, eta herritarrak suntsipen masiboko armen mehatxuaz sentikortzen lagunduko.

3. Promover el conocimiento de la Red y contribuir a la concienciación de la ciudadanía sobre la amenaza que representan las armas de destrucción masiva.

*4. Mayors for Peace* sareak Hiroshiman duen Nazioarteko Idazkaritzari akordio hauen berri emango diogu, bai eta Garnollers hiriari, Espainiako Estatuko Bakearen aldeko Alkateak sareko nagusia den aldetik, eta Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari ere."

4. Comunicar la adopción de estos acuerdos a la Secretaría Internacional de Mayors for Peace en Hiroshima, a la ciudad de Granollers como líder de Alcaldes por la Paz en España y a la Secretaria General de la Paz y Convivencia del Gobierno Vasco."

Hauek mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

* Oyarbide andreak (EAJ/PNV) euskaraz adierazi du bere taldeak mozioaren alde bozkatuko duela. EAJk bakearen aldeko ekimen guztietan parte hartu izan du beti, beren ADN politikoan dago, horregatik ekimen honetan ere aldeko jarrera izango dute. Gainera uste dute sare honetan sartzeak gure herriko bakegintzan eta normalizazioan ere laguntzeko balioko duela eta giza eskubideen eta biktima guztien errespetua oinarri hartuta gure herrian biolentziak eragin duen injustizia aitortu eta errespetuan oinarrituriko elkarbizitza marko bat eraiki dezakeela.

* Rodriguez jaunak (Errenteria IrabaziZ) adierazi du zoritxarrez Mayors for Peace bezalako ekimenak, Hiroshima eta Nagasakiko alkateak buru direla, geroz eta beharrezkoagoak direla, Alkateok bakearen alde erakundea diseinatu baitzen elkartasuna eraikitzeko eta arma nuklearrak guztiz desagerrarazteko programa babesten duten hirien arteko koordinazioa laguntzeko. Helburu nagusia da nazioartean lan egitea eta horrelako armamentuak deuseztatzearen inguruko kontzientzia piztea. Europako Parlamentuak babesa eman dio ekimen honi eta sare bat sortu du arma nuklearren desagertzearen eta bakearen alde. Eta kontuan izanda Bulletin of Atomic Scientists-en arabera munduan egun milaka buru lehergai daudela, horrelako armekin lortzen den ustezko bakea, ez da bakea, suntsipen handiko armak bezalako arma nuklearrak egoteak ez baitu eragotzi bigarren mundu gerraren ondorengo gerrarik edo Mediterraneoa hilerri bat izaterik. Errenteria IrabaziZek babesten du ekimen honekin bat egiteko proposamena, pertsona orok duelako arma nuklearrak dituztenek mehatxatutako etorkizunari ezetz esateko ardura, izan barreiatze-bonbak, pertsonen aurkako minak,

* Interviene la Sra. Oyarbide (EAJ/PNV) manifestando en euskera que su Grupo va a votar a favor de esta moción. El PNV ha tomado siempre parte en las acciones por la paz, forma parte de su ADN político, por lo que en este tema también su posicionamiento será favorable. Creen además que formar parte de esta Red ayudará en la pacificación y normalización de este Pueblo y, tomando como base los derechos humanos, el respeto a todas la víctimas y reconociendo la injusticia que en nuestro pueblo ha causado la violencia, se podrá construir un marco de convivencia basado en el respeto.

* Interviene el Sr. Rodriguez (Errenteria IrabaziZ) manifestando que por desgracia iniciativas como Mayors for Peace - Alcaldes por la Paz, liderada por los Alcaldes de Hiroshima y Nagasaki son cada vez más necesarias, considerando que Alcaldes por la Paz está diseñada para construir solidaridad y facilitar la coordinación entre ciudades que apoyen el programa para la abolición total de las armas nucleares. Su principal meta es trabajar internacionalmente para despertar la conciencia sobre la abolición de dicho tipo de armamento. El Parlamento Europeo ha ofrecido apoyo a esta iniciativa y crea una red para la previsión de las armas nucleares y a favor de la paz. Y teniendo en cuenta que de acuerdo con el Bulletin of the Atomic Scientists el mundo cuenta hoy con miles de cabezas explosivas, la supuesta paz que se obtiene por tener esta tipo de armas, no es tal ya que la existencia de armas nucleares como de armas de extinción masiva no ha impedido ninguna de las guerras posteriores a la segunda guerra mundial o que el Mediterraneo se convierta en un cementerio. Desde Errenteria IrabaziZ apoyan la propuesta de adhesión a esta



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

arma kimikoak, bakteriologikoak edo bestelakoak.

iniciativa, consideran que todas las personas tienen la responsabilidad de decir no a un futuro amenazado por quienes tienen en su poder armas nucleares y cualquier arma altamente destructiva como bombas de racimo, minas anti personas, armas químicas, bacteriológicas, etc.

* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du bere taldeak alde bozkatuko duela. Ongietorria eman diote ekimen honi eta erakundeetatik lanean jarraituko dute ildo honi eusteko.

* Interviene el Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifestando que su Grupo votará a favor. Dan la bienvenida e esta iniciativa y seguirán trabajando desde las instituciones por seguir la senda que se está marcando.

* Gracia jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du alde bozkatuko dutela, batez ere bi arrazoitan oinarrituta: batetik, arma nuklearren aurka duten jarrera, eta, bestetik, atxikimenduak eta proposamenak herriei, hiriei eta instituzio lokalei esleitzen dien paperagatik. Arma nuklearren inguruan gutxi dago esateko, atxikimenduan argi jartzen du pertsonen eta planetaren segurtasuna arriskuan jartzen dute, eta zentzu horretan, gauza gutxi eransteko. Baina balioan jarri nahiko lukete elementu sinboliko bat, azken finean, ekimen hau abiatu zen 1982an, abiatu zuen Hiroshimako alkateak, eta bere ustez gutxiegitan errepikatzen da, munduan bi herrik bakarrik jaso dituzte erasoak arma nuklearrekin, Hiroshimak eta Nagasakik, biak Japonian, biak Ameriketako Estatu Batuek eraginda, eta eragin zituzten 200.000 hildako baino gehiago. Zentzu horretan, balio sinboliko oso potentea dauka horrelako ekimen bat abiatzeak juxtu herri horietariko bateko ordezkari gorenak. Beste alde batetik, pixka bat konplexuagoa, uste dute horrelako ekimenak nolabait erlazio internazionalen paradigmaren aldaketa bat bultzatzen duela. Gaur egun, esaten da

* Interviene el Sr. Gracia (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifiestando en euskera que por supuesto su Grupo votará a favor basándose principalmente en dos razones. Por un lado, la actitud contraria que mantienen a las armas nucleares y por otro lado, el papel que les otorga esta adhesión a los pueblos, ciudades e instituciones locales. Sobre las armas nucleares, la propuesta dice claramente el peligro en el que ponen a las personas y al planeta, por tanto poco más que añadir en ese sentido. Pero sí que quisieran poner en valor un elemento simbólico, al final, esta iniciativa nace en 1982, la inicia el Alcalde de Hiroshima y cree que pocas veces se repite este hecho, en el mundo solamente dos ciudades han recibido ataques nucleares, Hiroshima y Nagasaki, ambas en Japón, ambas a manos de los Estados Unidos de América y causaron más de 200.000 muertos. En ese sentido, tiene un valor simbólico muy potente el que un acto así surja justo de los representantes máximos de esas dos ciudades. Por otro lado, algo más complejo, cree que este tipo de actos generan en algún sentido un paradigma del cambio en las relaciones internacionales. Hoy en día



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

bederatzi estatuk dituztela arma nuklearrak, eta hau soilik esplikatzen ahal da doktrina errealistatik; alegia, estatu bakoitzak defendatzen du egin dezakeela nahi duena, berekoiki, indarrez inposatuta bere iritzia. Zentzu horretan uste dute herrien arteko elkarlan honetan bultzatzeak armagabetze bat suposatzen duela nolabait logika hori inbertitzea. Hori da arrazoi bat, eta bestea, esaten zuena, udalei eta tokiko gobernuei ematen dien papera. Gaur egun, estatuak, nazioz gaindiko eta nazioz azpiko esparruetatik edukiz husten ari dira, beren botereguneak higatzen dira; horri erantzuteko, udalerriak, herriak, ikusten da tresna oso eraginkorra direla. Hartara, kontuan hartuta bi elementu horiek eta herriek bakegintzan eta bizikidetzan izan dezaketen papera, baiezko bozka emango diote mozioari.

hay nueve estados que poseen armas nucleares y explican su función desde una doctrina realista, en la que cada estado defiende lo que quiere desde una posición egoísta, imponiendo por la fuerza su opinión. En ese sentido, creen que este trabajo común entre distintos países impulsando un desarme supone de alguna manera invertir esa lógica. Esa es una razón y otra, la que antes comentaba, el papel que otorga a los ayuntamientos y gobiernos locales. Hoy los gobiernos, en los ámbitos supra e infraestatales se están vaciando de contenido, como respuesta a esto se ve que los municipios, los pueblos, son una herramienta muy eficaz. Por ello, tomando en cuenta esas dos cuestiones y viendo el papel que los municipios pueden tener en la pacificación y en la convivencia, van a dar su voto favorable a la moción.

Amaitu dira mintzaldiak.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aho batez, aldeko 21 botorekin (Orereta/ Errenteria EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV), hau

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 21 votos a favor (Orereta/Errenteria EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV),

**E R A B A K I   D U**

**A C U E R D A**

**Onartzea** alkateak aurkeztutako mozioa, Mayors for Peace sareari atxikitzeari buruzkoa (gai honen azalpen-zatian jasota dago).

**Aprobar** la Moción presentada por el Alcalde en relación a la adhesión a la red de Mayors for Peace, que queda reflejada en la parte expositiva del presente asunto.

**13. Energia-pobretasunari buruzko mozioa, Errenteria IrabaziZ udal taldeak aurkeztua, eta energia-pobretasunari buruzko mozioa, Euskal**

**13. Moción sobre la pobreza energética presentada por el Grupo Municipal Errenteria IrabaziZ y moción sobre la pobreza energética**

**Sozialistak-Socialistas Vascos taldeak aurkeztua.**

Energia-pobretasunari buruzko erdibideko mozio hau irakurri dute. Udaleko talde guztiek sinatu dute eta Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos eta Errenteria IrabaziZ taldeek aurkeztutakoak ordezkatuko ditu:

"FAMILIA BAKAR BAT ERE EZ ELEKTRIZITATE, GAS EDO BEROKUNTZARIK GABE, ENERGIA-POBRETASUNAREN AURKAKO UDAL PLANA

Laster, urteko garaia dela-eta, energia elektrikoa erabiltzeko inoiz baino behar handiagoa izango dugunez, mozio honen bitartez adierazi nahi dugu beharrezkoa dela Udalak berariazko plan bat edukitzea energia-pobretasunaren aurka. Izan ere, hainbat familiak ezingo dute faktura ordaindu eta argia moztuko diete, eta egoera horiei modu eraginkorragoan aurre egin behar zaie.

7 milioi pertsonak zailtasunak dituzte argia ordaintzeko eta 5 milioi baino gehiago berokuntzarik gabe geratuko dira negu honetan. Urtero, Espainiako estatuan pertsona gehiago hiltzen dira etxean hornidurarik ez izateagatik, trafiko-istripuagatik baino.

Egoera larri horren kausa garrantzitsua da argiaren tarifa etengabe handitu izana. Azken 6 hilabeteetan % 25 garestitu da. Konpainiek sistematikoki uko egiten diote auditoria bat egiteari produkzio elektrikoaren benetako kostuak zehazteko eta sustatzen dute espekulazioa laguntzen duen sistema. Horregatik, ezinbestekoa da gardentasun handiagoa

**presentada por el Grupo Municipal Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos.**

Leída la siguiente moción transaccional sobre la pobreza energética, suscrita por todos los grupos municipales, que sustituye a las presentadas por Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos y Errenteria IrabaziZ:

"NINGUNA FAMILIA SIN ELECTRICIDAD, GAS O CALEFACCIÓN, PLAN MUNICIPAL CONTRA LA POBREZA ENERGÉTICA

Ante la proximidad de fechas en las que el uso de la energía eléctrica es más necesario que nunca, a través de esta moción queremos reclamar la necesidad de contar con un plan municipal específico contra la pobreza energética para hacer frente de forma más efectiva a las situaciones de algunas familias que por falta de pago puedan verse abocadas a cortes de luz.

7 millones de personas tienen dificultades para pagar la luz y más de 5 millones se quedarán sin calefacción durante este invierno. Cada año mueren en el estado español más personas por falta de suministros en sus hogares que por accidente de tráfico.

Causa importante de esta grave situación se encuentra en los aumentos indiscriminados de la tarifa de la luz. Tan solo en los últimos 6 meses se encareció en un 25%. Las compañías se niegan sitemáticamente a realizar una auditoría que permita determinar los costes reales de la producción eléctrica y promueven un sistema que favorece la

izatea tarifa elektrikoaren gehiegikeriekin amaitzeko.

especulación. Es imprescindible por ello una mayor transparencia para poder acabar con los abusos de la tarifa eléctrica.

Igoera horri gehitzen badiogu etxeetako sarrerek behera egin dutela langabeziaren eta soldaten beherakadaren ondorioz, emaitza da familiek zailtasunak dituztela argia, ura edo gasa ordaintzeko.

Si a esa subida le añadimos la bajada de los ingresos de los hogares, debido al paro y la bajada de salarios en gran medida, el resultado es que muchas familias están teniendo dificultades para pagar los recibos de la luz, agua o gas.

Premiazkoa da nazioartean hartutako konpromisoak errespetatzea Espainiako estatuak, eta bermatzea betetzen direla Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 25. artikulua eta Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen batzordearen 4. ohar orokorra; xedapen horien arabera, bizi-maila duina izateko etxebizitza egokia izan behar da, ura, argia eta berokuntza bezalako oinarrizko hornidurekin.

Resulta urgente que el Estado español respete los compromisos adquiridos en el marco internacional y garantice el cumplimiento del artículo 25 de la Declaración Universal de los Derechos Humanos y la Observación general Número 4 del Comité de Derechos Económicos, Sociales y Culturales, según las cuales un nivel de vida digno requiere de una vivienda adecuada con acceso a suministros básicos como luz, agua y calefacción.

Halaber, hornidura elektrikoari buruzko Europako legeria bete behar da, estatu kideak behartzen baititu egoera larrian dauden erabiltzaileak babestera eta garai kritikoetan argi-mozketak debekatzera (2009ko uztailaren 13ko 2009/72/EE Zuzentarauaren 3. artikulua).

Del mismo modo necesitamos que se cumpla la legislación europea sobre suministro eléctrico, que obliga a los Estados miembros a proteger a los usuarios vulnerables y a prohibir los cortes de luz en periodos críticos (artículo 3 de la Directiva 2009/72/CE, de 13 de julio de 2009.

Arartekoaren 2016ko urtarrilaren 26ko 1/2016 gomendioan kalkulatzen zen energia-pobretasunak negu honetan Euskadiko 200.000 biztanle baino gehiagori eragin liezaiekeela. Bestalde, 2014an 38.355 pertsonari moztu zitzaien energia-zerbitzuen hornidura etxean. Erakundeek esku-hartze eraginkorragoa izan behar dute, datu horiek onartezinak baitira.

En la recomendación general del Ararteko 1/2016 de 26 de enero de 2016 se calcula que la pobreza energética podría afectar este invierno a más de 200.0000 ciudadanos vascos. Por otro lado, en 2014 la población afectada por cortes de suministros de servicios energéticos del hogar afectó a 38.355 personas. Consideramos que es necesaria una intervención más eficaz de las instituciones ya que estos datos son intolerables.

Udalbatzak hainbatetan adierazi du Energia Pobretasuna desagerrarazteko konpromisoa duela, adibidez, 2014ko urrian aho batez onartutako mozioarekin. Mozio horretan erakundeei eskatzen genien arazo larri horri aurre egiteko estrategiak eta neurriak hartzeko. Azpimarratu behar da udal honek baliabide asko bideratzen dituela energia-pobretasunarekin amaitzera, eta Udaleko talde politiko guztiek konpromisoa hartua dutela GLLak mantentzeko. Hala ere, gure ustez energia-pobretasunaren aurkako tokiko plan bat ezarri behar da, gure udalerrian horrelako kasuak gerta ez daitezen.

Este pleno ha manifestado en otras ocasiones un compromiso relativo a la defensa de la erradicación de la Pobreza Energética, como la moción que se aprobó por unanimidad en octubre de 2014 que instaba a otras instituciones a la adopción de estrategias y medidas para acabar con esta lacra. Cabe destacar que este Ayuntamiento dedica una cantidad importante de recursos para acabar con la pobreza energética y que existe un compromiso entre todos los grupo políticos para el mantenimiento de las AES. Aun así, consideramos que es necesario implementar un plan local contra la pobreza energética para prevenir estos casos en nuestro municipio.

Arartekoak, beste hainbat gomendioren artean, kontzertazio sozialeko printzipioa erreklamatzen du, euskal administrazio publikoek jarduteko proposamenak kontzertatu behar dituztela gainerako eragileekin, bereziki, enpresa hornitzaileekin. Gipuzkoako beste hainbat udalerrik horrelako ekimenak burutu dituzte, adibidez, Irunen hitzarmen bat sinatu dute Udalak eta Iberdrola energia-enpresak udalerrian energia-pobretasuna jasaten dutenak babesteko. Hitzarmen horrek aurreikusten ditu Udalaren eta enpresaren arteko koordinazio-tresnak, saihesteko udalerrian erroldatuta dauden eta gizarte-larrialdiko prestazio ekonomikoren bat jasotzen duten pertsonei faktura ez ordaintzeagatik energia-hornidura eten dakieten.

El Ararteko, dentro de sus recomendaciones, reclama el principio de concertación social, por las que las administraciones públicas vascas deben concertar propuestas de actuación con el resto de agentes intervinientes, en especial, las empresas suministradoras. Otros municipio de Gipuzkoa están llevando adelante iniciativas de este tipo con éxito, como Irún, donde se ha firmado un convenio entre el Ayuntamiento y la empresa energética Iberdrola para proteger activamente a quienes sufren de pobreza energética en su municipio. Este convenio prevé mecanismos de coordinación entre el Ayuntamiento y la empresa, para evitar la suspensión del suministro energético por impago de la factura a las personas empadronadas en sus municipios que puedan ser beneficiarias de una prestación económica de emergencia social.

Horregatik, Errenteriako Udalbatzak hau onartu du:

Por todo ello, el Pleno del Ayuntamiento de Errenteria aprueba lo siguiente:



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

1. Errenteriako Udalbatzak eskatzen dio udal-gobernuari datozen sei hilabeteetan abian jartzeko energia-pobretasunaren aurkako udal-plan bat, neurri zehatzak bilduko dituena, betiere gainerako alderdi politikoak eta hirugarren sektoreko erakundeak kontuan hartuta.

2. Errenteriako Udalbatzak eskatzen du azter dadila energia-enpresekin hitzarmenak sinatzeko aukera gure udalerrian energia-hornidura eten ez dakien gizarte-larrialdiko prestazio ekonomikoren bat jasotzen dutenei.

3. Errenteriako Udalbatzak eskatzen dio Eusko Legebiltzarrari energia-pobretasunari aurre egiteko araudi bat susta dezan.

4. Errenteriako Udalbatzak eskatzen dio Espainiako estatuko gobernuari neurriak har ditzan bermatzeko hornidura elektrikorako sarbidea, pertsona orok etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidearen zati besterenezin gisa (EKaren 47. artikulua) eta gizakiaren duintasuna behar bezala errespetatzeko baldintza gisa (EKaren 10. artikulua).

5. Bat egitea, abenduaren 21ean udaletxeko argiak ordubetez itzalita 19:00etatik 20:00etara, #NoMásCortesDeLuz ekimenaren mobilizazioarekin. Deialdia gizarte-kolektiboek eta erakunde sindikalek egin dute Espainian energia-pobretasunarekin amaitzeko helburuarekin.

Hauek mintzatu dira:

* Collar jaunak (Errenteria IrabaziZ) adierazi du

1. El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno Municipal a que ponga en marcha un Plan Municipal contra la Pobreza Energética con medidas concretas, en el plazo de seis meses, contando con los diferentes partidos políticos y organizaciones del tercer sector para su elaboración.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria solicita que se valore la posibilidad de firmar convenios con diferentes empresas energéticas para evitar que en nuestro municipio haya cortes de suministros energéticos a persona que puedan ser beneficiarias de una prestación económica de emergencia social.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Parlamento Vasco a que promueva una normativa que haga frente a la pobreza energética.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno de Estado Español a que apruebe medidas que garanticen el acceso al suministro eléctrico entendido como parte inalienable del derecho de toda persona a una vivienda digna y adecuada (artículo 47 de CE) y como condición necesaria para el debido respeto a la dignidad humana (artículo 10 CE).

5. Sumarse en forma de apagón de una hora en el edificio del Ayuntamiento el próximo 21 de diciembre de 19:00 a 20:00 a la movilización de la iniciativa #NoMasCortesDeLuz que han convocado colectivos sociales y organizaciones sindicales para acabar con la pobreza energética en el Estado Español.”

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene el Sr. Collar (Errenteria IrabaziZ)

2007an krisia hasi zenez geroztik, energia-pobretasuna dela arazo sozial eta ekonomiko nagusienetakoa Estatu espainiarrean, langabeziarekin eta soldaten beherapenarekin bat egiten baitu tarifa elektrikoak igo izanak. Gaztelaniaz jarraitu du esanez zazpi milioi pertsonak zailtasunak dituztela argindarraren faktura ordaintzeko, eta bost milioi baino gehiago berokuntzarik gabe geratuko direla negu honetan. Urtero Espainiako estatuan pertsona gehiago hiltzen dira etxeetan hornidurarik ez izateagatik, trafiko-istripuengatik baino; energia-pobretasunak hil egiten du. Hiru elektrika handienek 56 milioi euro baino gehiago poltsikoratu dituzte etekinetan 2007an krisi hasi zenetik; aldiz, milioi askoko zorra dute herritarrekin. 1998 eta 2006 artean elektrika handiek 3.500 milioi baino gehiago kobratu zituzten ilegalki konpetentziaren trantsiziorako kostuengatik. Urrian Auzitegi Gorenak emandako bi epaiek baliogabetzen dute bono soziala finantzatzeko sistema eta agerian uzten dute eredu horrek porrot egin duela, familia kalteberen oinarrizko eta funtsezko zerbitzurako sarbidearen beharrei ez erantzuteaz gain, erabiltzaileak behartzen dituelako elektrikei 500 milioi baino gehiagoko kalte-ordainak ematera. Egungo bono sozialak ez du konpontzen pobrezia energetikoaren arazoa, tarifa oso altua izan eta errenta-irizpideen arabera aplikatzen ez denez, neurri kosmetikoa besterik ez baita, eragindakoen bi heren kanpo utzi dituena, aldi berean errenta altuetako etxeak diruz laguntzen dituelarik. Bestalde, oligopolio elektrikoak pribilegio-egoeraz abusatu eta kontsumitzaileen eskubideak urratu ditu, gure herrialdean milioika pertsonak bizi duten pobrezia energetikoaren dramarekin amaitu behar dugu, horrek eragiten du elektrikak gertatzen diren heriotzetan parte handiagoa izatea. Premiazkoa da

manifestando en euskera que desde que en 2007 empezó la crisis, la pobreza energética es uno de los mayores problemas sociales y económicos en el Estado Español, porque al paro y a la bajada de sueldos se une el tremendo incremento de la tarifa eléctrica. Continúa en castellano manifestando que siete millones de personas tienen dificultades para pagar la factura de la luz y más de cinco millones se quedarán sin calefacción este invierno. Cada año mueren en el Estado Español más personas por la falta de suministros en sus hogares que por accidentes de tráfico, la pobreza energética mata. Las tres mayores eléctricas se han embolsado más de 56 millones de euros en beneficios desde el inicio de la crisis en el 2007, mientras sostienen una deuda millonaria con la ciudadanía. Entre 1998 y 2006 las grandes eléctricas cobraron ilegalmente más de 3.500 millones en concepto de costes de transición de la competencia. Las dos sentencias dictadas el pasado octubre por el Tribunal Supremo, por las que se anula el sistema de financiación del bono social, evidencian el fracaso del actual modelo que no solo no da respuesta a las necesidades de acceso al servicio básico y esencial de las familias vulnerables, sino que además obliga a los usuarios a indemnizar a las eléctricas con más de 500 millones. El actual bono social no soluciona el problema de la pobreza energética ya que sigue siendo una tarifa muy elevada y ni siquiera se aplica por criterios de la renta, se trata de una medida meramente cosmética que ha dejado fuera a dos terceras partes de las personas afectadas, a la vez que subvenciona hogares con rentas altas. Por su parte el oligopólio eléctrico ha abusado de la situación de privilegio vulnerando los derechos de los consumidores, necesitamos acabar con la dramática situación de la



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

Espainiako estatuak errespeta ditzan nazioartean hartutako konpromisoak eta berma dezan betetzen direla Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 25. artikulua eta Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen batzordearen 4. ohar orokorra; horren arabera bizi-maila duina izateko etxebizitza egokia izan behar da, argia, ura eta berokuntza bezalako oinarrizko hornidurekin. “No más cortes de luz” plataformaren (Facua, Plataforma nuevo modelo energético, CGT, UGT, Attac, La PAH, Democracia real eta beste asko) erronka onartu dugu. Horregatik iruditzen zaigu eskatu beharko luketela legez debekatzea arazo ekonomikoak dituzten familiei argia moztea. Elektrikek beti administrazioarengana jo behar dute fakturak ordaintzen ez dituzten familien egoera egiaztatzeko. Tarifa-gehiegikeriekin amaitzea, tarifa soziala sortzea, elektrika handiek aitortzea eta itzultzea oker kobratu zituzten 3.500 milioi euroak, sistema elektrikoaren auditoria egitea eta elektrizitateari BEZ murriztua aplikatzea. Hurrengo puntuetan proposatzen dute ahal den neurrian itzalaldi sinboliko bat egiteko.

pobreza energética que viven millones de personas en nuestro país, esto hace que las eléctricas sean partícipes de estas muertes que se están sucediendo. Es urgente que el Estado Español respete los compromisos adquiridos en el marco internacional y garantice el cumplimiento del artículo 25 de la Declaración Universal de los Derechos Humanos y la observación general número 4 del Comité de Derechos Económicos, Sociales y Culturales, según los cuales el nivel de vida digno requiere de una vivienda adecuada con acceso a suministros básicos como la luz, el agua y la calefacción. Nosotros hemos cogido el guante de la plataforma “No más cortes de luz”, que está integrada por Facua, Plataforma nuevo modelo energético, CGT, UGT, Attac, La PAH, Democracia real y tantos otros. Por esto creemos que debieran instar a la prohibición legal de todos los cortes de luz a las familias con problemas económicos. Las eléctricas deben dirigirse a la administración para comprobar la situación de las familias que no abonen sus recibos. Fin de los abusos tarifarios, creación de una tarifa social, reconocimiento y devolución por parte de las grandes eléctricas de los 3.500 millones de euros que cobraron indebidamente, una auditoría del sistema eléctrico y la aplicación de un tipo de IVA reducido a la electricidad. Y en los siguientes puntos proponen un apagón simbólico en la medida de lo posible.

* Palencia jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du, komentatu duen moduan, Errenteria IrabaziZek eta talde sozialistak bi mozio aurkeztu zituztela pobrezia energetikoari buruz eta gai beraren alderdi desberdinak jorratzen zituztenez erabaki zutela egoki zela erdibideko mozio hau egitea

* Interviene el Sr. Palencia (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifestando que, como ya se ha comentado, Errenteria IrabaziZ y el Grupo Socialista presentaron dos mociones sobre la pobreza energética y ya que tocaban diferentes aspectos del mismo tema consideraron que era

bi mozio horien puntu guztiak bilduta. Mozio honi izenburua jarri diote “Familia bakar bat ere ez elektrizitate, gas edo berokuntzarik gabe, energia-pobretasunaren aurkako udal plana”; ez ditu errepikatuko mozioan ematen dituzten datu guztiak, batzuk aipatu dituzte, eta iruditzen zaio guztiek ezagutzen dituztela. Datu hauek eskuetan dituztela, adierazi nahi dute beharrezkoa dela berariazko udal-plan bat izatea pobrezia energetikoaren aurka, ahalik eta modu eraginkorrenean aurre egiteko zenbait familiak ordaindu ezin izateagatik jasaten dituzten argi-mozketei. Mozioan esaten den moduan, udalbatzak hainbatetan adierazi du pobrezia energetikoa desagerraraztearen aldeko konpromisoa, adibidez, 2014ko urrian aho batez onartutako mozioan. Bertan beste zenbait erakunderi eskatzen zitzaien estrategiak eta neurriak har zitzaten gaitz honekin amaitzeko. Azpimarratu behar da udal honek baliabide ugari bideratzen dituela pobrezia energetikoarekin amaitzera eta talde politiko guztiek konpromisoa hartua dutela Gizarte Larrialdiko Laguntzak mantentzeko. Hala ere, beharrezkoa iruditzen zaie energia-pobretasunaren aurkako tokiko plan bat ezartzea udalerrian horrelako kasuak gerta ez daitezen. Plan horren baitan, eta horregatik azpimarratu dute puntu berezi batean, talde honen ustez akordioak martxan jarri beharko lirateke enpresa hornitzaileekin, hornidura-mozketak prebenitzeko. Arartekoak energia pobretasunarekin amaitzeko gomendioen artean erreklamatzen du kontzertazio sozialeko printzipioa, horren arabera euskal administrazioek jarduketa-proposamenak kontzertatu behar baitituzte esku hartzen duten gainerako eragileekin, bereziki enpresa hornitzaileekin. Gipuzkoako beste udalerri batzuk horrelako ekimenak abian jarri dituzte, arrakastarekin,

pertinente relizar esta moción transaccional que recoge todos los puntos de las dos mociones que presentaban. Esta moción la han llamado “ninguna familia sin electricidad, gas o calefacción, plan municipal contra la pobreza energética”, no va a repetir todos los datos que se aportan en la moción, algunos ya se han aportado, cree que son por todos conocidos. Con estos datos en la mano, quieren reclamar la necesidad de contar con un plan municipal específico contra la pobreza energética para hacer frente de forma más efectiva a las situaciones de algunas familias que por falta de pago puedan verse abocadas a cortes de luz. Tal y como pone de manifiesto la moción, este Pleno ha manifestado en otras ocasiones un compromiso relativo a la defensa de la erradicación de la pobreza energética, como la moción que se aprobó por unanimidad en octubre de 2014 que instaba a otras instituciones a la adopción de estrategias y medidas para acabar con esta lacra. Cabe destacar que este Ayuntamiento dedica una cantidad importante de recursos para acabar con la pobreza energética y que existe un compromiso entre todos los Grupos Políticos para el mantenimiento de las Ayudas de Emergencia Social. Aun así consideran que es necesario implementar un plan local contra la pobreza energética para prevenir estos casos en el Municipio. Dentro de este plan, y de ahí que lo hayan destacado en un punto aparte, este Grupo considera que se debieran poner en marcha acuerdos con empresas suministradoras con la intención de prevenir cortes de suministros. El Ararteko, dentro de sus recomendaciones para acabar con la pobreza energética, reclama el principio de concertación social, por el que las administraciones públicas vascas deben concertar propuestas de actuación con

adibidez, Irunek edo Lasartek; hitzarmenak sinatu dituzte udalek energia-enpresekin, aktiboki babesteko beren udalerrian pobrezia energetikoa jasaten dutenak. Hitzarmen horiek aurreikusten dituzte Udalaren eta enpresaren arteko koordinazio-mekanismoak gizarte larrialdiko prestazio ekonomikoaren onuradun izan daitezkeen eta beren udalerrian erroldatutan dauden pertsonei faktura ez ordaintzeagatik energia-hornidura eten ez diezaieten. Horrez gain, Eusko Legebiltzarrari eskatzen diogu pobrezia energetikoari aurre egiteko araudi bat martxan jar dezan.

el resto de agentes intervinientes, en especial las empresas suministradoras. Otros municipios de Gipuzkoa están llevando a cabo iniciativas de este tipo con éxito, como Irun o Lasarte, donde se han firmado sendos convenios entre el Ayuntamiento y empresas energéticas para proteger activamente a quienes sufren de pobreza energética en su municipio. Estos convenios prevén mecanismos de coordinación entre el ayuntamiento y la empresa para evitar la suspensión del suministro energético por impago de la factura a las personas empadronadas en sus municipios que puedan ser beneficiarias de una percepción económica de emergencia social. Además de esto, solicitamos al Parlamento Vasco la puesta en marcha de una normativa que haga frente a la pobreza energética.

* Oyarbide andreak (EAJ/PNV) euskaraz adierazi du bere taldeak mozioaren alde bozkatuko duela. Gai honen inguruan iruditzen zaie sentsibilitate berezia eduki behar dela eta honek ez duela gelditu behar deklarazio huts batean. Horregatik proposatu dute Udalak bere gain hartu beharreko ardurak epe konkretu bat eta helburu eta konpromiso konkretu batzuk eduki beharko lituzkeela. Beharrezkoa iruditzen zaie baita ere erakundeei eskaerak egitetik haratago Udalak jarrera aktiboa izatea eta ekintza konkretuak martxan jartzea. Iruditzen zaie hori dela punturik garrantzitsuena mozio honetan, hori bai baitago gure esku eta hori aurrera ateratzea Udalak bere esku daukalako. Beren ustez, hor dago mozio honen baliorik handiena.

* Interviene la Sra. Oyarbide (EAJ/PNV) manifestando en euskera que su Grupo votará a favor de la presente moción. Piensan que con este tema hay que tener una sensibilidad especial, no se debe quedar en una mera declaración. Por ello han propuesto que el Ayuntamiento tome sus responsabilidades en un tiempo concreto, que debiera tener unos objetivos y unos compromisos claros. También les parece necesario que, más allá de las peticiones realizadas a otras instituciones, el Ayuntamiento debe tomar una actitud activa y poner en marcha actuaciones concretas. Ese es el punto más importante, el Ayuntamiento puede sacar esto adelante y, en su opinión, ahí está el mayor valor de la moción.

* López de Echezarreta andreak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du ez dela posible inor mozio honen aurka egoterik.

* Interviene la Sra. López de Echezarreta (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando en euskera que piensa que no es posible que haya

Zalantza dauka eragin handiena udal batek izan dezakeen pobrezia energetikoari aurre egiteko, segur aski beste erakunde askok ere izango dute, baina ez du zalantzan jarri nahi testuarekiko adostasuna erabatekoa dela. Baina garrantzitsua da adieraztea zer den pobrezia energetikoa eta jatorrian zer arazo dauden pobrezia energetikoa etxeetan egon dadin eta pertsonek paira dezaten. Hiru dira pobrezia energetikoa etxeetara, familietara eta pertsonengana eramaten duten eragile zuzenak, eta lehen Errenteria IrabaziZeko bozeramaileak esan duen moduan, gaixotasun- eta heriotza-iturri garrantzitsua ere bada; esan daiteke osasun-arazoa ere badela. Bat da diru-sarreren edo etxebizitza familia-errentaren jaitsiera, dirurik ez daukat eta ezin diet nire fakturei aurre egin. Beste bat da etxebizitzen efizientzia energetiko baxua. Bere ustez, bi kasu hauetan nabarmen instituzioek eta udalak lagundu dezakete, ez udalak bakarrik, EEEk ere laguntzen du efizientzia energetikoa lortzen; beste kontu bat da ea nahikoa den edo ez, hori beste debate bat izango litzateke. Baina hirugarrena oso garrantzitsua da, energiaren prezioaren igoera. Azken hamar urteetan % 90 garestitu da energia, segur aski, pobrezia energetikoaren soluziobideak bilatu behar badira, hemen aipatzen diren neurri guztiak dira interesgarriak, baina azkenean enpresa horiei ordaintzen jarraitzen dugu. Ados administrazio publikoetatik egiten dela, eta horrekin lortzen dugu jendeari elektrizitatea ez moztea etxean, eta ez du hori zalantzan jartzen, baina postura asistentzialista hauetatik haratago hausnarketa politiko sakonago bat egin behar da, zein da gure eredu energetikoa?, zer gertatu da energiari zegozkion hainbat zerbitzu publiko pribatizatu ditugunean? “puertas giratorias”, zergatik ikusten dugu administrazio-kontseiluetan

nadie en contra de esta moción. Tiene dudas sobre que la mayor incidencia en la lucha contra la pobreza energética la pueda tener un ayuntamiento, seguramente serán otras muchas instituciones, pero no tiene duda de que están totalmente de acuerdo con el texto. Cree importante definir qué es la pobreza energética y qué problemas reales hay en origen en las casas donde se sufre la pobreza energética y qué personas la soportan. Tres son los inductores directos que traen la pobreza energética a las casas, a las familias y a las personas, y que como antes ha dicho el portavoz de Errenteria IrabaziZ, también son fuente importante de enfermedades y de muerte, se puede decir por tanto que también es un problema de salud. Está ahí la bajada de salarios o de la renta familiar, sin duda, si no tengo dinero, no puedo hacer frente a las facturas. Por otro lado está la baja eficiencia energética de las viviendas. Cree que en estos dos casos las instituciones y los ayuntamientos claramente pueden ayudar, no solo el ayuntamiento, el EVE también ayuda en conseguir la eficiencia energética, no sabe si lo suficiente o no, ese sería otro debate. Pero también hay un tercer aspecto que es muy importante, se trata de la subida del precio de la energía, en los últimos diez años se ha encarecido en un 90%, seguramente, si tienen que buscar soluciones a la pobreza energética, todas las que se reflejan en la moción son interesantes, pero al final lo que se hace es seguir pagando a esas empresas. De acuerdo que se hace desde las administraciones públicas y con eso se consigue que a esas personas no se les corte el suministro en sus casas, es interesante y no lo cuestiona, pero es cierto que más allá de esta postura asistencial habría que hacer una reflexión política más profunda, ¿cual es nuestro modelo energético?, ¿qué ha ocurrido con



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

gure politikariak daudela? zergatik ez dute haiek egiatan lortzen aldatu daitezela tarifak, adibidez? Bere ustez, hor badago gezur puntu bat, ez diotelako arazo nagusienetariko bati behar bezala erreparatzen. Eta hori Plenoan behin baino gehiagotan esan izan dute, burujabetza behar dugula, baita ere burujabetza energetikoa, lokala, propioa dela behar duguna. Bestela hori da egin beharrekoa, lan bat ikusteko nola lagundu jendeari besteek kobratu nahi dioten eta ordaindu ezin duten horri aurre egiten, baina inoiz arazoaren sakonera iritsi gabe. Eta berari eskandalu bat iruditzen zaio % 90 igotzea, zer ari gara esaten?, zalantzarik gabe, zerbait eskatu behar bada, izango da Eusko Jaurlaritzari eskatzea lege bat eskubide hau bermatuko duena. Beraz, mozioarekin guztiz ados, eta lokaletik ere ahal duten guztia egingo dute, baina ez dezagun beste alde batera begiratu eta ahaztu erantzukizunak oso handiak direla eta segur aski askoz ere hausnarketa sakonagoak egin behar direla gai honen inguruan.

tantos y tantos servicios correspondientes a la energía que eran públicos y que se han privatizado?, puertas giratorias, etc. ¿por qué vemos que están nuestros políticos en los consejos de administración?, ¿por qué no consiguen ellos, por ejemplo, que se modifiquen las tarifas?. Por esto cree que ahí hay un punto de mentira, porque no se repara realmente en uno de los puntos principales. Por ello, en este Pleno han dicho en muchas ocasiones que el soberanismo, también el soberanismo energético local, propio, es lo que se necesita. De otra forma esto es lo que tienen que hacer, trabajar para ver cómo ayudan a la gente a poder hacer frente a lo que otros quieren cobrarles, pero sin llegar al fondo de la cuestión. Le parece un escándalo la subida del 90% , ¿de qué están hablando?, sin duda hay que pedir una ley al Gobierno Vasco que garantice este derecho. Por lo demás, totalmente de acuerdo con la moción, harán todo lo que sea posible desde la administración local, pero sin mirar hacia otro lado y sin olvidar que las responsabilidades son muy grandes y que seguramente hay que hacer reflexiones más profundas sobre este asunto.

* Oyarbide andreak (EAJ/PNV) euskaraz adierazi du ez zuela esan nahi botere edo eskumen gehien dituena Udala denik, baizik mozio hau ez dela gelditzen beste instituzioei egiten zaien eskaera huts batean, baizik eta konpromiso bat hartzen dela hemendik, epe batekin, eta hori bertute bat iruditzen zaiela.

* La Sra. Oyarbide (EAJ/PNV) en euskera, quiere aclarar que no ha querido decir que los ayuntamientos tengan la máxima responsabilidad en este asunto, sino que esta moción no se quede en una mera petición a otras instituciones, que sea un compromiso concreto que sale de aquí, con un plazo, y que eso les parece una virtud.

Amaitu dira mintzaldiak.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aho batez, aldeko 21 botorekin (Orereta/

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 21



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

Errenteria EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV),

E R A B A K I  D U

**Onartzea** energia-pobretasunari buruzko erdibideko mozioa, Udaleko talde guztiek babesten dutena (gai honen azalpen-zatian jasota dago).

votos a favor (Orereta/Errenteria EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV),

**A C U E R D A**

**Aprobar** la moción transaccional sobre la pobreza energética, suscrita por todos los grupos municipales, que consta en la parte expositiva del presente asunto.

**14. Galdera-eskariak.**

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/errenteriako EHBildu) azaldu du gaur goizean jakin dutela Aitzol Gogortza ospitalean ingresatu dutela krisi batengatik eta berriz ere kartzelan dagoela. Udalbatzak hainbatetan akordioa hartu du preso gaixo hori aske utz dezaten eskatzeko. Antsietate-krisi horiek bere gaixotasun obsesibo-konpultsiboaren ondorio dira, badirudi egun batzuk zeramatzala egoera txarrean eta, berak eskatuta, antsietatea dela-eta, ospitalera eraman dutela. Egoera dramatikoa eta urgentea bihurtzen ari da, gogoratu behar da 20 urteko kondenatik 17 bete dituela kartzela eta horietatik zenbait ez dizkiotela kontuan hartzean Frantzian bete dituelako. Hori dela-eta, egoera oso zaila da, Aitzolen egoera dramatikoa delako eta egunen batean berri txarren batekin topo egin dezaketelako. Abagunea baliatu nahi du senitartekoei eta lagunei animoak eta besarkada bat bidaltzeko, momentu oso gogorrak bizitzen ari direlako.

**14. Ruegos y Preguntas.**

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) explica que hoy han sabido que por la mañana han ingresado en el hospital a Aitzol Gogortza por una crisis y que ya está de nuevo en la carcel. Este Pleno ha adoptado en varias ocasiones el acuerdo de solicitar la libertad de este preso enfermo. Esas crisis de ansiedad se deben a su enfermedad obsesivo-compulsiva, parece que llevaba varios días en una mala situación y por solicitud suya, debido a la ansiedad, ha sido ingresado en el hospital. Esta situación se está volviendo dramática y urgente, hay que recordar que de una condena de 20 ha cumplido ya 17 años en la carcel y de esos, algunos no le computan por haberlos cumplido en Francia. Esto convierte la situación en muy dificil, porque el estado de Aitzol es dramático y algún día se pueden encontrar con una mala noticia. Quería aprovechar para enviar a los familiares y amigos mucho ánimo y un abrazo, porque los momentos que están viviendo son muy duros.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du berak ere animoak eta besarkada bat bidali nahi dizkiela bere taldearen izenean.

* Collar jaunak (Errenteria IrabaziZ) komentatu du bat egiten dutela esandakoarekin eta gustatuko litzaiekeela Aitzol aske ikustea, guztion eta bere familiaren artean.

* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du bere taldetik ere animoak bidali nahi dizkietela Aitzolen lagunei eta senitartekoei.

Amaitu dira mintzaldiak.

----------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 20:50 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut autonomia-erkidegoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

* La Sra. Peña (EAJ/PNV) también quiere enviarles por parte de su Grupo mucho ánimo y un abrazo.

* El Sr. Collar (Errenteria IrabaziZ) comenta que se suman a lo dicho y les gustaría ver a Aitzol libre entre todos nosotros y su familia. .

* El Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) señala que desde su Grupo también quieren mandar ánimo al colectivo de amigos y a la familia de Aitzol.

Finalizadas las intervenciones.

----------

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 20:50 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net Errenteria